

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



**EZTABAIDA: NOLATAN LAN ERREFORMAREN
AURKAKO GREBA DEIALDI BI? /7**

**KIROLA: JULEN MASACH REALEKO
PRESTATZAILE FISIKOARI ELKARRIZKETA /10**

Goienka

EGUBAKOITZA • 2002ko maiatzaren 31 • III. urtea • 67. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Gorpuzti: erlijioa eta folklorea uztartzen dituen ospakizuna

ELGETA

1.132.593 euroko udal aurrekontua onartuko dute datorren astean /5

PAUL NICHOLSON

"Eredu neoliberalen aurrean, herrien janari subiranotasuna aldarrikatu gura dugu" /8

'JAPONIAKO BELAR TXARRA'REN SUSTRAIAK 18 METROKOAK IZAN DAITEZKE

Landare kaltegarria dabil hedatzen gurean

Debagoieneko edozein ibai edo erreka ertzi hurrengo begiratzen diozuenean, bila ezazue bihotz formako hosto zabalak dituen harilko formako landare mor-doxka bat. Bi ezaugarri oso deigarri izango ditu: batetik, bere loraketa aroa udaberriarekin

batara hasten denez, dezente hazita izango da honezkero; eta bestetik, hurrengo begiratzen diozuenean, seguru asko, hedadura handiagoa hartua izango du. Ingelesezt *belar txar* deitzen diote, eta Japoniatik ekarri zuten ingelesek, 1825. urte inguruan. /3

■ *'Japoniako belar txarra' deitzen diote landare horri*

■ *Oso azkar hedatzen da, baita aurkako baldintzekin ere*



GOIO ARANA

Arrasateko Garagartza auzoko erreka ondoan ere asko hazi da *Reynoutria japonica*.

Euskadiko Kutxako kontu-ikuskaritza zuzendaria atxilotu dute

Garzon epaileak aginduta, polizia operazioa egin zuten eguazten goizean Arrasaten. Euskadiko Kutxako eraikin nagusian, Iñaki Mallagarai Kortazar mallabiarra atxilotu zuten, Euskadiko Kutxako kontu-ikuskaritza sailako zuzendaria. Iñaki Mallagarairaren bulegoa arakatu zuen poli-

zia judizialak, eta ordenagailuko disko gogorra atzeman zuten. Mallabian ere beste hainbat egoitza miatu zituen Espainiako polizia.

Herriko tabernetako dituen kontuen kontrol judizialari oztopoak jartzea eta ETari laguntza ematea egotzi dio Garzonek. /4

OÑATI

Arantzazuko Santutegiko lanak hasi dituzte

Arantzazuko Santutegiko eskola zaharreko pilotalekuak bota egin dituzte, eta atzeko aldean agerian geratu da dagoeneko harkaitza. Gero, seminarioaren zati handi bat ere bota egingo dute. Hantxe egingo duten eraikin berria kultura jarduerarako erabiliko dute. /5

MENDIA

Jesus Mari Barrena mondragoetarra Nanga Parbatera

Domekan irtengo da Pakistan aldera Nanga Parbat (8.125 metro) igotzea helburu duen euskal espedizioa. Sei mendizalek osatzen dute taldea, tartean, Jesus Mari Barrena *Ketxuma* arrasatearrak. Espedizioa beste kideen artean, hiru gasteiztar, azkoitiar bat eta elgoibartar bat daude. /4



Tel: 943 79 81 66
E-mail: atai@vianwe.com
ARETXABALETA

**ZURE KARTELAK,
PROPAGANDA,
IRAGARKIAK, OHARRAK,
KAMISETAK, EZKONTZA
GONBIDAPENAK ...
ATAI-N DISEINA
ETA GERTATU DITZAKEGU**

AURPEGIA BERRITU



ARGITASUN GEHIAGO NAHI?

Clarins
Sérum Corps Peau Neuve
Gaueko tratamendua, koipe bakoa, azalari distira guztia ematen diona, zelula hilak kenduta eta adinaren adierazgarri agerrienak minimizatuta.

TINKOTASUN FALTARIK BADUZU?

Berehalako lifting efektuko edertasun Serum-a. Serum-aren islatzaile agenteek zimurak gutxitzen dituzte, eta efektu optikoa egiten dute.

Biotherm
Densité Lift. Sérum Liftéur Fermeté



5 MINUTUAN EDER EGON NAHI?

Clarins
Multi-Régénérant
Eragin indargarri sendoko maskara. 5 edo 10 minutuan bakarrik azalari gazetasun itxura ematen dio. Ondorioak: sendotu eta leundu; indartu eta hidratatu.

HASI DIRA ALDAKETA HORMONALAK*?

Elikagaiezko krema: barrutik, azalean adinagatik eta hormona eskasiagatik ahuldutako bizi funtzioak berpizten ditu.

Lancôme
Absolue. Crème Reconstituante Profonde



*Azal helduendako tratamendu berezia.

Udaberria sasoi ezin hobea da zure azala puntu-puntu jartzeko, eta horretarako, DENOK PERFUMERIA Sek HIDRATA-AKZIO plana jarri du abian.

Gizonendako eta emakumeendako tratamendu onenak, markarik ezagunenekin, DENOKen aurkituko dituzu. Zure azalak osasun eta edertasun distira izan dezan.

Eska ezazu zure **OPARIA!**

Maiatzaren 11 eta ekainaren 8a bitartean, opari bikaina jasoko duzu Goi-mailako Perfumeriako edozein Tratamendu produktu eroste hutsarekin

...horrez gain, hiru tratamendu-saskiren zozketan parte hartuko duzu, gure denda bakoitzean.




Izakinak amaitu arteko eskaintza. Ez da beste promozio batekin bateragarria.

KUPOI BEREZIA

Aurkez honako txartel hau DENOK PERFUMERIA Sen maiatzaren 11tik ekainaren 8ra bitartean, eta tratamendu-mostra bat jasoko duzu doan.

Has ezazu...

Maiatzaren 11 eta ekainaren 8a bitartean



Hidrata AKZIO-a

Zure azala tratatzeko soluzio onenak



Hezkuntza Eskaintza
Zure etorkizunerako biderik onena!

Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Ibilgailuen Elektromekanika
- Kontsumorako Ekipo Elektronikoak
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako Laguntza Osagarriak

D Eredua

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produkzioa
- Metal Eraikuntzak A eta D Ereduak

Aurreinskripzio Datak

Ekainaren 3tik 12ra (biak barne)

Goizeko 9:00etatik 17:00etara

Sta. Teresa, 25
Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
Faxa: 943 79 44 37
20500 ARRASATE
posta-e: iarrasate@euskalnet.net

Etxebarri auzoa, z/g
Tel: 943 79 79 00 • 79 79 43
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABAETA
posta-e: ia@iaretxabaleta.euskalnet.net

Japoniako izurria

Oso landare kaltegarria azkar dabil hedatzen Debagoienez zehar

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko edozein ibai ertzi hurrengo begiratzen diozuenean, bila ezazue bihotz formako hosto zabalak dituen harilko formako landare mordoxka bat. Bi ezaugarri oso deigarri izango ditu: batetik, bere loraketa aroa udaberriarekin batera hasten denez, dezente hazita izango da honezkerok; eta bestetik, hurrengo begiratzen diozuenean, hedadura handiagoa hartu izango du.

LANDAREAREN BERRI GUTXI

Landare inbaditzaile bat da. *Reynoutria japonica* du izena. Abadiñoko Parques y Jardines lorezaintza enpresako arduradun Felipe Lópezek honela dio: “Deba ibaian barrena berehala hedatu da. Ibai osoa hartuta dauka landareak”.

Azkenaldian oso azkar hedatzen ari da geurean. Hala ere, aspalditik dago Euskal Herrian: “Orain dela hogeitau urte-edo hasi zen inbasioa. Hemen izugarri zabaldua da eta bertako landare espezie asko ordezkatzen ari da”, diosku Jakoba Errekondo adituak. Harritzekoa da hain aspaldikoa izanda, Debagoieneko lorezain eta aditu askok ez zutela landarearen berri askorik.

EKOSISTEMAK SUNTSITU

Ingelesezt, “belar txar” deitzen diote, eta arrazoiak badituzte: oso azkar hedatzen da, aurkako baldintzekin ere bizirik irauteko gaitasuna du –sikateak, bero edo hotz handia...–, berehala hazten da... Oso sakon hondoratzen ditu sustraiak eta horri esker lur barruko ura eta elikadura beste landare guztiek baino lehenago lor dezake. Hori dela eta, batzuetan, alboko landareak guztiz desagerraraz ditzake *Japoniako belar txarrak*. Bitxiene da landare hori apaingarri moduan ekarri zutela europarrek: “Loratetik landare bezala erabiltzen zuten, bai-


“*Erresuma Batuan Japoniako belar txarra deitzen diote gurean agertu berri den landareari*”

“*Landarea oso azkar hedatzen da, eta aurkako baldintzekin ere bizirik irauten du*”

“*Santa Agedan landatuta izan zen, baina, kalterako zela ikusita, kendu egin zuten*”

na laster, arazo bihurtu zen”, dio Felipe Lópezek. “Santa Agedan, Mondragoen, landatu zuten, eta gero, kalterako zela ikusita, kendu egin zuten”, gaineratzen du. Errekondok honela dio: “Balio ornamentalengatik ekarri zuten. Azkenean jendeari asko gustatu ez, abandonatu eta berezko bizitoki egokiak hartzen ari da, batez ere ibai eta erreka bazterrak”.

Berehala moldatzen da *Reynoutria japonica* edozein baldintzatar. Landarearen eragina oso kaltegarria da, bertako landare-tza suntsi dezakeelako eta ezabatzen oso gaitza delako; gainera, ekosistema osoa hankaz gora jar dezake, bertako landareez elikatzen diren animaliak ere desagerpenera eramanez ditzakeelako.



‘JAPONIAKO BELAR TXARRA’, Mexikoko banbua, tximu edo ijito arabarba... Ingelesezt hamaikatxo izen herrikoi ditu *Reynoutria japonica*, *Polygonum cuspidatum* edo *Fallopia japonica* deritzen landare inbaditzaile horrek. Baina ez gaztelaniaz ez eta euskaraz ere ez diogu izenik ipini oraindik. Sekulako baldintza txarretan bizirik irauteko aukera handiak ditu. Hosto iraunkorreko landarea da. Normalean, bi metro erraz hartzen ditu, baina egoera onenetan, hirutik gora ere haziko da. Banbu tankerako kimutan hazten zaizkio hostoak: triangelu edo

bihotz formakoak dira, handiak. Martxotik apirilera bitartean loratzen zaizkio kimu berriak; loreak, aldiz, abuztutik urrira bitartean. Errizomak (sustraiak) oso sakon hondoratzen ditu –batzuetan, 18 bat metro sakon har ditzake– eta sare antzeko bat osatzen duenez, azpian harrapatzen dituen landareak ito egiten ditu.

LEGEA ERE, AURKA

Erresuma Batuko legeak kentzea agintzen du

Polygonum cuspidatum delako horren eragina hain kaltegarria da ezen, aurkako legeak merezi izan dituen landare gutxienetarikoa bat izan dela. Erresuma Batuan, esaterako, 1981eko lege batek “iraintzat” jotzen du landare hori landatzea, eta legeak berak landare erroto ateratzea agintzen du. AEBetako Washingtoneko estatuan “landare kaltegarri” moduan kalifikatuta dago.

APROPOS EKARRITAKO

Landare probetxugarria zelakoan ekarri zuten

Kontraesana bada ere, hasieran, Asiako jatorriko landare hori eragin mesedegarriengatik ekarri zuten Japoniatik ingelesek, 1825. urte inguruan, eta gero, Ameriketara eramanez zuten. Hasieran, lorategiak apaintzeko eta lur-higadura kontrolatzeko erabiltzen zuten europarrek eta estatubatuarrek, baina laster, arazo bihurtu zen. Euskal Herrira Frantziatik etorri zen.

ZELAN HEDATZEN DA?

Sustrai zatiak edonon zabaltzen dira

Haziaren bidez barreiatzen da, baina badu beste hedapen modu bat ere, askoz eraginkorragoa. Izan ere, elikadura eta iraupena ziurtatzen dizkion sustrai mota berberari esker zabaltzen da edonon landare hori. Sustrai zatiak (errizomak) barreiatzea nahikoa du landareak ingurune berrian erroto bota eta hara moldatzeko. Ur korronteen, haizearen... bidez barreiatzen dira.

ZELAN EZABATU?

Azkar hedatzen da eta kentzeko oso gaitza da

Landarea ezabatzeko modu bi daude. Bata, agresiboena, *glifosato* izeneko osagaia duen belar-hiltzailea langartzea da. Hala ere, *glifosato*-a ez da selektiboa, hau da, ondoko beste belar guztiak ere hilko ditu. Beste metodoa erroto ateratzea eta sustraiak ebakitzea da, landarea “neka” dadin. Baina oso tratamendu luzea da hori. Metodo eraginkorrena da... prebentzioa.

ON EGIN!

Loratetik sukaldera eramanez dezakezu

Baina ezaugarri guztiak ez ditu hain txarrak *Japoniako belar txar* horrek. Adibidez, bitxiene moduan esan dezakegu jangarria ere badela. Udaberri hasieran, 30 zentimetroko kimu gazteak ebaki eta lurruntan edo egosita zerbitza daitezke, esparragoak balira bezala. Kimu zaharragoak mermelada antzeko bat egiteko ere erabil daitezke, kimuok azukrearekin egosita.



Iñaki Mallagarai Euskadiko Kutxako egoitza nagusian atxilotu zuten, Arrasaten, eguazten goizean.

Euskadiko Kutxako kontu-ikuskaritza zuzendaria atxilotu dute Arrasaten

Herriko tabernetako diru kontuen kontrolari "oztopoak jartzeagatik"

ENEKO AZKARATE

Euskadiko Kutxako kontu-ikuskaritza zuzendari Iñaki Mallagarai mallabiarra atxilotu zuen Espainiako polizia eguazten goizean Arrasaten, Euskadiko Kutxako eraikin nagusian. Iñaki Mallagarairen bulegoa araka-

tu zuen polizia judizialak, eta ordenagailuko disko gogorra atzetan zuten. Herriko tabernetako diru kontuen kontrol judizialari oztopoak jartzea eta ETArri laguntza ematea egotzi zion Garzonek. Espainiako Entzutegi Nazionalera, Madrilera, eroan zuten Iñaki Mallagarai.

Euskadiko Kutxako ardura-dunek ez zuten adierazpen publikorik egin nahi izan. Prentsa ohar bat banatu zuten eguaztenean. Bestek beste, Euskadiko Kutxaren jardura, legeak ezarritako arauen barruan oinarritzen dela jakinarazi zuten prentsa ohar horrekin.



Batasunaren Forum Ibiltaria

Batasuneko Joseba Álvarezek, Iñaki Antiguedadek eta Aitor Arantzabalek aurkeztu zituzten martitzenean, Bergaran, Euskal Herria eraikitzeke Batasunak hartzen dituen konpromisoak. Bestek beste, autodeterminazioaren, erakuntza nazionalaren, euskararen ofizialtasunaren eta hezkuntza-sistema propioaren alde egiten du Batasunak. /E.A.

BAILARAN LABUR

Euskal Herriko Mendi Federazioak urteko batzarra egingo du zapatuan Elgetan

Euskal Herriko Mendi Federazioaren batzarra izango da bihar, zapatua, goiz osoan, Elgetan. Espaloian izango da batzarra eta hantxe batuko dira Euskal Herriko mendi elkarteetako ordezkariak. Federazioko presidente Antxon Bandres ere hantxe izango du. Aurrerantzean ere urteko batzarra Elgetan egiten jarraituko dute mendizaleen ordezkariak. /OXEL EROSTARBE

Jesus Mari Barrena mondragoetarra Nanga Parbat mendira abiatuko da domekan

Domekan irtengo da Pakistan aldera Nanga Parbat (8.125 metro) igotzea helburu duen euskal espedizioa. Sei mendizalek osatzen dute taldea, tartean, Jesus Mari Barrena *Ketxuma* arrasatearrak. Espedizioko beste kideen artean, hiru gasteiztar, azkoitiar bat eta elgoibartar bat daude, denak esperientzia handiko mendizaleak. Uztailearen lehenengo astean ahaleginduko dira tontorrera igotzen. Espedizioak 42 mila euroko aurrekontua dauka. /GORKA ETXABE

Eskoriatzako Fagor Ederlan enpresak Ford, Volvo eta Mazda autoen piezak egingo ditu


MCC taldeko Fagor Ederlanek nazioarteko proiektu baten parte hartuko du. Ford, Volvo eta Mazda autoendako piezak egingo dituzte Ederlanen, eta mundu osorako banatzaile bakarra izango da Eskoriatzako enpresa. Proiektua mundu osora zabalduko da eta Fagor Ederlanek 96 milioi euroko fakturazioa izango du 2002-2005 laurtekoan. Horretarako, 34 milioi euroko inbertsioak egin behar dituzte 2002ko ekitaldian. Bestek beste, produkzio lantokia handituko dute, makina berriak erosi dituzte eta beste hainbat hobekuntza egingo dituzte. Hornitzaile guztien arteko lankidetzaren baten barruan esku hartu du Ederlanek proiektu honetan, eta lehen mailako hornitzaile taldea izan du lankide: Conti Teves, Fag, Tenesco eta ZF Lemforder. Gainera, Benteler enpresa alemaniarren koordinaturiko proiektua izan da. Fagor Ederlanek 2000. urtea ezkerro dihardu proiektu horretan murgilduta. /GORKA ETXABE

Eskoriatzako Humanitate eta Zientzien Fakultateak beste titulazio bat eskainiko du

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak beste titulazioa bat eskainiko du datorren urtean: Eskuartzeko Psikopedagogikoa, hain justu ere. Aurrerantzean, hortaz, Psikopedagogiak bigarren zikloko lizentzia bi izango ditu: Eskuartzeko Psikopedagogia eta Hizkuntzen Psikopedagogia. Lizentzia berria bigarren zikloko lizentzia da, eta hala, egun osoan lanean ari diren profesionalak nola ikasketak osatu nahi dituztenek ere interes handia erakutsi dute egiteko. Hori dela eta, bi erabaki hartu dituzte, era guztietako ikasleei erantzun nahian: batetik, eskolak murriztea; bestetik, *on-line* ikasketak indartu. /SAIOA OJANGUREN

Kartzelan 21 urte daramatzen Jon Agirre aramaioarraren aldeko ekitaldiak izan dira

Espetxean 21 urte daramatzen Jon Agirre aramaioarraren aldeko Mendi Martxa egin zuten joan zen domekan. Arrasateko, Aretxabaletako eta Aramaioko hirurogei bat lagun elkartu ziren. Nor bere herritik irten, eta Murumendin elkartu ziren guztiak. Jon Agirrek kartzelan 21 urte bete dituela gogorarazten duen pintada bat ere egin zuten. /UBANE MADERA



**AEKn
jardun
gura dozu?**



EUSKARA IRAKASLEA IZATEKO IKASTAROA

(Oinarrizko prestakuntza)

EGUTEGIA: uztailaren 1etik 24ra
ORDUTEGIA: goizez 5 orduz
TOKIA: Bergarako Akulu AEK euskaltegian
MATRIKULA: 250 euro
IZENA EMATEKO EPEA: Ekainaren 1etik 21era

INFORMAZIOA:

Bergarako aek • 943 76 05 18 • bergara@aeknet.net
Arrasateko aek • 943 77 03 69 • arrasate@aeknet.net
Eibarko aek • 943 20 13 79 • eibar@aeknet.net

ARRASATE Hamaika mozio landu zituen udalbatzarrak osoko bilkuran

Maiatzeko osoko bilkura egin zuten atzo. Landutako gaien artean, nabarmentzekoa da hamaika mozio zituztela. Tartean, Eudelen adierazpen zibikoa aurkeztu zuten EAJk, EAK eta PSE-EEk. Batasunak horri mozio alternatiboa aurkeztu zion eta, horrez gainera, Batasunaren ilegalizazioaren kontrako beste bat aurkeztu zuen. Besteak beste, EBk ekaineko grebaren aldeko mozio bat aurkeztu zuen. Edozelan ere, artikulua idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dakigu zer erabaki duten. /U.M.

ARAMAIO Araba Euskaraz omendutako artean, Aramaio zenbaitzuk daude

Ekainaren 16an, Araba Euskaraz ospatuko dute Zigoitian. Besteak beste, ohitura dute festan norbaiti omenaldia egitea. Aurten, 70eko hamarkadaren hasieran Gasteizen euskararen alde lanean ibili zen jende talde bat omenduko dute.

Talde horretan, Aramaioekin zerikusia duten hiru lagun daude: Jon Kortabarría aramaioarra, Emilio Pérez, oraingo parrokoa; eta Iñaki Oregi, parrokoa izandakoa. Hain zuzen ere, azken horrek hartuko du saria talde osoaren izean. /UBANE MADERA

ANTZUOLA Eskola Kiroleko Kontseilua eratu dute gurasoek, eskolak eta Udalak

Euren helburua da neska-mutikoen eskola orduetatik kanpo egiten duten kirola bultzatzea. Horretarako eratu dute kontseilu hori Pausoka gurasoen elkartearen kideek, Udaleko Kirol teknikariak eta Herri Ikastetxe ordezkariek.

Gurasoak izan dira beti eskola kirolaren oinarria, eta eurek hartu izan dituzte arlo horretan ardura gehientsuenak. Hemendik aurrera ere halaxe izango da, baina Udalak hainbat baliabide jarriko dizkie eskura neska-mutikoei, irakasleei eta gurasoei. /A.I.



OÑATI

Arantzazuko Santutegiaren inguruak eraberritu eta kultura topagune bihurtzeko lanak hasi dituzte, eta bota dituzte dagoeneko eskola zaharreko pilotalekuak

Maiatzaren 14an hasi ziren lanean hondeatzaileak. Eskola zaharreko pilotalekuak bota dituzte, eta atzeko aldean agerian geratu da dagoeneko harkaitza. Gero, seminarioaren zati handi bat ere bota egingo dute. Hantxe egingo duten eraikin berria, hortaz, oraingoa baino txikiagoa izango da eta kultura jarduerak askotarako erabiliko dute: erakusketarako, hitzaldiak edo batzarrak egiteko...

Eraberritze lan horiek frantziskotarrak Arantzazun daudela 500 urte bete direnean hasi dira egiten. Abian den proiektu horrekin, santutegiaren ingurunea indartu eta naturaren eta arkitekturaren arteko harreman berezia sustatu nahi dute. Proiektuaren aurrekontua ia 5.500.000 eurokoa da. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA

Udalak 1.132.593 euroko aurrekontua onartuko du egueneko osoko bilkuran

Eguenean izango den osoko bilkuran, 1.132.593 euroko (188.447.777 Pta) aurrekontua onartuko du Udalak. Izan ere, aurrekontu hori aurkeztuko duen EAJ-EA koalizioak gehiengoa dauka Udalean.

Batasunak ez du erabaki aurrekontu horren alde bozkatuko duen edo ez. Iaz, aurrekontuen aurka bozkatzeagatik, Gobernu Batzordetik kaleratu zuten EAJ-EAK. Aurten, berriz, Kultura eta Baserritarren batzordeek egindako proposamenak kontuan hartu dituztenez, seguruenik ez du aurrekontuen aurka bozkatuko.

Iazko aurrekontuarekin alderatuta, aurten, 128.921 euro gehiago izango dira. Igoera hori inbertsioek eragingo dute. Udaleko langileetan, zerbitzuetan eta interesetan zehaztu dutena iaz onartu zenaren oso antzerakoa da. Transferentzietan, aldiz, etxeko zerbitzua eta Elgeta 21en kapitala gehi-

tu behar dela eta, gora egingo du aurrekontuak.

INBERTSIOETAN IGOERA

Iaz, 166.480 euro onartu zituzten inbertsioetarako. Aurten, berriz, igoera nabarmena gertatuko da atal horretan: guztira, 251.233 euro bideratuko dituzte. Aurrekontu horiek EAJ-EA koalizioaren gehiengoarekin onartuko direla jakinda, Batasunak alde edo aurka bozkatuko duen jakitea geratzen zaitgu. /OXEL EROSTARBE

Inbertsio nagusiak

ZERTARAKO	ZENBAT
IV. Sektorea	54.091 €
VII. Sektorea	30.050 €
Arau Subsidiarioak	31.252 €
Kiroldegia	27.045 €
Ura auzoetara	27.746 €
San Rokeko plaza	18.030 €
Espaloia	18.030 €
Agenda 21	4.808 €
Beste batzuk	40.171 €
GUZTIRA	251.223 €

BERGARA

Santa Marina parrokian zaharberritze lanak hasiko dituzte uztailean

Lan horiek direla eta, uztailetik martxora arte egongo da itxita eliza. Barruko zein kanpoko aldetik egingo dituzte lanak, lau fasetan banatuta, eta guztira, 1.300.000 euro inguruko aurrekontua izango dute.

Xabier Azkoitia parrokoaren esanetan, lanok bi helburu nagusi dituzte: elizaren erabilera ziurtatzea

eta ondarea zaintzea, kontuan izanda, gainera, parrokiak eta barruan duen erre- taula nagusiak Monumentu izendapena dutela.

Horrela, argi instalazioa, iluminazioa eta berogailu sistema berriak jartzeaz gain, eliza barrutik eta kanpotik zaharberrituko dute; baita erre- taula, irudiak eta margolanak ere. /M.B.



Itxita dagoen artean, San Pedron eta San Lorentzon esango dute meza.

ARETXABALETAKO Euskararen erabileraren kale neurrak egin du Sei elkarteak

Joan den eguaztenean, kalean euskararen erabilera maila zein den jakiteko egindako ikerketaren berri eman zuten. Ikerketa hori soziolinguistikan lan egiten duen Sei kultura elkarteak egin du, herriko Udalak horrela eskatuta.

Herriko umeen, gazteen, helduen eta zaharren euskararen erabilera maila neurtu dute ikerketan. Udalak bi urtean behin egingo du antzeko ikerketaren bat. Aurtengoan, nabaria da, mantso badoa ere, euskararen egoera hobertzen doala herrian. /AMAGIOIA LASAGABASTER.

ESKORIAZKA

Dena gertu baserritarren eta artisauen VI. Ferixie egiteko

Eskoriatzako Jose Arana Ikastolako ikasle, guraso eta irakasleek guztia gertu daukate zapatuan baserritarren eta artisauen VI. Ferixie egiteko. Ehun postu inguru jarriko dituzte, produktuak erosteko eta dastatzeko. Animaliek, esate baterako, ikusmin handia sortuko dute, mapatxeak eta kanguruak egongo dira-eta. Ikasleek egindako produktu ugari egongo dira salgai. Umeek ere izango dute zelan disfrutatu: Txorimalo Lehiaketan, esate baterako, lau urtetik gorako guztiek har dezakete parte. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

Bertako euskariaren ikerketa bekia atara dau Udalak

Aretxabaleko eta Eskoriatzako udalekin batera, Leintz Gatzagako Udalak, bertako berbetie galtzeko zorixen ikusitza, beka bat ataratie erabaki dau, bertako euskariaren ikerketa linguistiko globala egiteko. Ordainsarixa 9.000 euro izengo da. Beka horrek 15 hillebete iraungo dau, eta proposamenak aurkezteko epie ekaiñaren 3tik aurrera hilabete egongo da. Horren gaineko informazio gehiago 943 71 18 62 eta 943 71 44 07 telefonuetan jasoko dau interesa daukonak. /A.G.

Zabalik



RUFINA
OLASAGASTI

Teknologia

Unescok bere lan sail baterako euskal baleontzi baten irudia hartu du, *itsaspeko kultur ondarearen babeserako* sailaren ikur, hain zuzen. Eta Ternuan, Kanadako Red Bayn hondoratuta dagoen itsasontzi hori ikertzen ari diren Robert Grenier eta Cindy Gibbons izan ziren ikur horren irudia Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Diputatuari, Luis Mari Bandrés, entregatu ziotenak.

Urte batzuk direla, Robert Grenierri entzuteko aukera izan nuen Bilbon, 1565ean hondoratu omen zen Pasaiaiko *San Juan* izeneko baleontzi horren ikerketan hasi eta gero. Gizona txundituta zegoen itsasontzia egin zuten arotzek zuten jakinduriarekin, eta ilusionatuta bertan egindako aurkikuntzarekin: zurezko iltzeak izatea zen horietako aurkikuntza bat, bustian egon arren herdoiltzen ez direnak eta iltzatzen dituzten oholei gorputz sendoa ematen dienak.

Garai hartako teknologia maila handi baten adierazle da untzigintza, baita armagintza ere, aurreko GOIENKARIAn Jose Antonio Azpiazuri egindako elkarrizketan dioenez; alegia, Toledoko ezpata famatuak Arrasaten egiten zituztela XVI. mendean. Eta Azpiazuri esaten digu armagintzan ez ezik, Ternuara zihoazen baleontzien negozioetan ere sartuta zeudela oñatiarrak, arrasatearrak eta bergararrak. Burdina eta zurajea landu zuten, untzigintzan, batez ere, baina baita eraikuntzaren inguruan jarduten zuten ofizio askotan ere.

Geroztik, ezagunak dira Bergarako Erret Mintegian egindako lanak eta ikerketak (Elhuyar anaiek wolframioa aurkitu zuten bertako laborategietan, Chabaneauk platinoa xaflatzeko modua...). Eta orain, beste batzuen artean, Bergarako Metagra eta Arrasateko Fagor Elektratsenek enpresei emandako sarien berri izan dugu.

Datu batzuk dira lehen sendo zen teknologia orain ere egoera onean dela baieztatzeko.

Gutunak

Pikutara!

Jadanik udaberriaren nahiko sartuak gara eta mila kolorez apaindu zaizkigu sorozelaiak. Lore eta fruitu garaia da udaberria. Ion Agirre preso aramaioarrak, ordea, 21 urte daramatza udaberria loratzen ikusi barik.

Erraz esaten da, bai, errazegi akaso. Hil honetan zehar, 21. urteurren hau oroitzeko asmoz, hainbat omenaldi-ekitaldi antolatu ditugu eskualdeko Askatasunakoek eta horren harira doa honako idatzi hau. Izan ere, inork gutxik esango luke udaberria loratu denik.

Are gehiago, esango genuke oraindik neguko lozorroan topatu ditugula aho bete hortz kalean kamiseta, pegatina errebindikatibo mordoa golkoan zintzilikatu eta "ni oso abertzalea naiz, ni euskal presoak Euskal Herrira, ni gora eztaikit-zer eta ni, ni, ni...", kaka.

Oso erraza izaten da hitzez dominak janztea. Zailena, ordea, ekintzez egitea da; maiz, gogorra. Ion Agirreraren omenaldian hau argi geratu da. Ekitaldiek izandako erantzuna ikusita, ziur gaude Ionek berak kartzelako barreoteak apurtu eta beroiekin bateron bati baino gehiagori burua apurtu liokeela eta ez gara PP, PSOE edota PNV-EAko ez ari, ez.

Badakigu ez direla garai onegiak eta datozenak ere ez direla xamurrak izango. Horrexegatik, hain zuzen ere, irten egin behar gara kalera, inoiz baino konbikzio handiagoz, inoiz baino ozenago, gure esku-bideak, gure borroka aldarrikatzerak. Ez dago aitzakiarik balioko duenik, borrokarako garaia da eta borrokatzeko bide asko daude.

Horietako bat kalera irten eta bere bizi-tzaren parte handi bat kartzelan pasatuko gudariei gure babes osoa erakustea da, maite ditugula adieraztea. Ez du balio behin kartzelatik irten eta bere zein lagunak garen esatea, hori faltsua da, kaka goitik behera.

Benetan maite ditugula erakusteko garaia orain ere bada, mila moduz adierazteko eta guztiak beharrezkoak. Izan gaitetzen kontsekuenteak, mesedez.

Bitartean, ez du udaberririk Euskal Herrian loratuko denik, bene-benetako lore eta fruituak giltzapean baititugu. Jo ta ke etxeratu arte!

LEINTZEKO ASKATASUNA
Debagoiena

Oñatiko golf zelaia

Aspalditxoan golf zelai baten eraikuntzaz Aherritik barreiatu diren berri eta zurrumurruen aurrean, ondokoek proiektu honen aurkako iritzia plazaratu gurako genuke.

- Inbertsio publiko handiko ekimena dugu hau. Hona bideratutako finantza baliabide publikoak sozialki beharrezkoagoak diren beste arlo batzuetan ezin izango dira inbertitu. Sozialki kaltegarriak eta atzerakoiak diren finantza lehentasunak ezarriz.

- Lurraren erabilerari dagokionez: bestela ere, gure lurraldean urriak diren nekazal lurrak areago gutxituko lirateke. Eta, bestalde, aisialdirako erabilera publikoko diren lur eremuak gutxi batzuen gozamerako akotatuak suertatuz.

- Ur kontsumo itzela dute holako instalazioek. Hektareko eta urteko, aurreikusitako 10.000 metro kubikoko ur kontsumoari, erantsi beharra dago putzu artifizialen mantenua. Gero, neurri ertaineko golf zelai baten ur kontsumoa, urteko, miloi bat metro kubikoa litzateke. Hots, 12.000 biztanleko herri bateko ur hornidura behararen adinakoa.

- UNESCO, New Yorkeko osasun departamentua eta Ecologistas en acción erakundeek dokumentazioa aintzat hartzen badugu, esan dezakegu golf zelaiak kutsadura handia sortzen dutela. Eskualdeko "gizonhaundi"-ek zapalduko duten belardiak mantentzeko erabili beharreko produktu kimikoen andana (pestizidak, ongari kimikoak, fungizidak...) oso kutsakorra eta erasokorra gertatzen da ingurunearekin nahiz pertsonekin. Produktu kimiko hauek lotura zuzena dute zenbait gaixotasunekin: arnas sistema eta azalaren narritadura, legionella, antzutasuna, eta dirudienez minbizi mota ezberdinekin. Ez da ahaztu behar produktu kimiko hauen %90 lurrazpiko uretan eta airean zabaldua bukatzen dutela. Arrisku hauen ondorioz, aholku zientifiko guztiek eta zenbait administrazio publikok, gobernu katalana kasu, aholkatzen eta behartzen dute golf zelaiak urbanizatutako gunetatik, gutxienez, 500 metrora kokatzera.

Beraz, sozialki ezegokia, ekologikoki arbuigarria eta orokorrean herritar gehien bizi kalitatearen murriztatzaila denez (elite baten kapritxoaren mesedetan), golf zelaiaren ekimena lehenbailehen baztertzea eskatzen dugu.

IRAILAK 21 IRITZI TALDEA
Oñati

Hemeroteka

ETB1: Hizkuntza, ereduak, audientziak

(...)
Euskara ez dakitenez ez dute ezagutzen ez ETB-1eko informazioa, ez bertan lantzen diren gaiak, pertsoniak, kultura... ETB-1ek nolabait asumitu egin du bere bakardadea eta bere txikitasuna. 45.000 pertsona ditugu ikusle moduan, beste guztiak handiak dira, boteretsuak... Eta horrela sinergien balioa galtzen dugu. Badaude muga batzuk benetakoak direnak, baina beste batzuk subjektiboak. ETB-1 eta ETB-2ren arteko sinergia bultzatu behar da. ETB-2k ETB-1en edukiak ezagutarazi behar ditu.

(...)
Euskal Herrian ez dugu talde mediatico propio sendorik. Telebista eta irratiak bai, baina egunkari publikorik ez dago. Dauden talde mediaticoen erreferentzialtasuna ez da Euskal Herriarena. Orduan, "El Correo"ra jotzen duzu, esaterako, eta ETB-1eko eta ETB-2ko programazioa ikus dezakezu, baina ez dituzu bertako programen aurkezleak elkarrizketatuta ikusten (edo oso gutxitan ikusten dituzu), saioen aipamenak... Euren makrotaldean programazioa bultzatzen dute. Guk ez dugu lortu halako sare mediatico sendo bat osatzea, sinergikoa izango dena, non bata beste elikatuko eta gorpuztuko duen. Geure kontrako faktore objektiboa da zorritzarrez.

(...)
ETBk kontziente izan behar du Euskal Herriko ikus-entzunezko azpiegituran motore nagusietako bat dela. Orain arte ETB telebista kanal bezala hartu dugu, eta ETB hori baino gehiago da, telekomunikazio zerbitzu kontzeptu orokorrera pasa beharko luke. Pausoak eman dira (sateliteak, Internet...), baina gehiago egin daiteke: informazio agentziak, seinaleak erabiltzeko Euskaltekin akordio estrategikoak... Telekomunikazio zerbitzu guztietan ETBk indartsu egin behar du. Eta telebista lokalekiko lotura ere indartu egin behar da, sinergiak bultzatuz: ETBk telebista lokalak aprobeztatu behar ditu eta alderantziz. Esan bezala, ikus-entzunezko azpiegituran motore da, publikoa delako, gurea delako eta horretarako ahalmena duelako. Gurdiari tirakodion idia izateko aukera du.

EDORTA ARANA (EHU-KO IRAKASLEA)
Larrun. 2002ko maiatza

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Langabeziaren Erreforma dela eta, huelga orokorrerako dei egin dute sindikatuek. Sindikatuek, baina, ez dute huelgarako dei bateraturik egin. Batetik, ELAk eta

LABek, ekainaren 19rako deitu dute huelga Hego Euskal Herrian. UGTk eta CCOOk, ostera, ekainaren 20rako egin dute deia Espainiarako. Lan harremanetarako euskal esparrua

aldarrikatzeko ere erabili nahi izan dute sindikatu abertzaleek huelga orokorra. UGTk eta CCOOk, ostera, batasun sindikala hautsi nahi izana leporatu diete ELAri eta LABi.

Zer dela eta, PPren Lan Erreformaren aurkako greba deialdi bi?

Langabeziaren Erreformak guztioi eragiten digu?



ENRIQUE
MARCOS
CCOO

Langabezia sorospena jasotzen duen Irungo langabe batek eta Cadizko beste batek arazo berbera dute: Euskadin zein Andaluzian, berdin eragiten die legeak bie. Espainiako Enplegu Institutua (INEM) Espainia osoan hedatuta dago eta euskaldunoi ere eragiten digu. Bestalde, grebarako dei bi egiterakoan, Aznarri arrazoia ematen diogu. Izan ere, Espainiako gobernuburua behin eta berriz errepikatzen ari da honakoa greba politikoa dela eta bere helburu bakarra Espainiako gobernu ahultzea dela.

Azkenik, grebarako dei bi egiteak arazoak sortuko ditu eta grebaren beraren arrakasta zaildu egingo du. Zergatik? Grebaren aurka daudenei eta grebarik ez egiteko aitzakia bila dabiltzanei, erraztasunak ematen ari garelako.

Euskal Autonomia Erkidegoari modu berezian eragiten dion arazoren baten aurrean, hemengo esparrua aintzat hartu eta Madrilgo aginduei muzin egin diegu beste batzuetan. Baina oraingoa bestelako arazoa da, hau da, Langabeziaren Erreforma horrek berdin eragiten digu guri eta Espainiako beste edozeini. Horregatik, uste dut sindikatu guztiek bat egin beharko genukeela eta alde aurretik ekainaren 20rako deia egin baldin bada, sindikatu guztiek errespetatu beharko genuke dei hori.

Bestelakoan, arrazoi asko egon daitezke PPren dekretu horren aurka protestatzeko eta greba egiteko. Hona batzuk: batetik, nekazaritzako langabezia-laguntzak murriztu egingo dira eta apurka-apurka desagertuaz joango dira; bestetik, kaleratzen dituzten langileen aurkakoa izango da lege berria. Izan ere, kaleratzen dituzten langileak langabeziara joango dira zuzenean, kaleratzea zuzena izan den edo ez frogatu arte itxoin barik; horretaz gain, langabeziatik dago-kiguna kapitalizatu eta diru hori kooperatiba batean sartzeko, esaterako, zailtasun handiagoak izango ditugu aurrerantzean; beste arrazoi bat da langabeek ezin izango dietela INEMeko lan-eskaintzei muzin egin, nahiz eta sarritan langileen interesekoak ez izan.

Eta, esango nuke PPK bestela ere merezi duela greba orokor bat, azken urteotan harrokeriaz agintzen diharduelako.

“Grebarako dei bi egiterakoan, Aznarri arrazoia ematen diogu greba politikoa dela dioenean”

Nola lan egin eta nola bizi, bertan erabaki behar dugu



ALBERTO
ELKORO-IRIBE
LAB

Ekainaren 19an jarrita dugun borroka-deialdiaren aurrean, CCOO eta UGT sindikatuek leporatu digute ez dugula batasun sindikalaren alde ahaleginik egin, baita langileria zatitzen ari garelako ere. Bestalde, hemengo gehiengo sindikala ordezkatzen dugunok probintziatiko sindikatuak izango bagina bezala tratatu gaituzte, ildo korporatiboko “Espainia Demokratiko eta Federaletako”.

Ez dute Euskal Herria herri bat denik onartzen. Hau da, euren giza antolaketa eta antolaketa politikoa aintzat hartuz, eta alde bakarretik, Madriletik, hain justu, aurregaldeketerik egin gabe, Euskal Herrian huelga orokorra noiz eta nola egingo den esateko gauza sentitzen dira. Portaera hau, baina, aldatu beharko dute.

Hobetuz-en garapena oztopatuz, PPren eskutik, ez dituzte ez LHEE eta ezta Gizarte Segurantzaren transferentziak ere onartzen; lan eta pentsio erreformak sinatzen dituzte; negoziatio kolektiboa zentralizatzearen alde daude; UPNren laguntzarekin, Nafarroako lan esparru guztietatik kanporatzen gaituzte; mesprezatzen eta gutxien gaituzte... Beste zerbait argitu behar al dugu?

Hori esanda, huelga egitearen arrazoiak zeintzuk diren azalduko dut. Langabeziaren erreforma, aurreko guztiak bezala, hegoaldeko langileriarendako inposizio hutsa da. Euskal sindikalgiak ezin du esan ezta ezer ere, eta egoera hau da, hain justu, aldatu behar duguna. Lan harremanetarako euskal esparrua (LHEE) behar dugu horretarako. Lan Harremanetarako Euskal Esparruak gure ekonomia-arazoak zein giza lanak hemen eta hemendik aztertzea esan nahi du.

Langabeziaren erreforma PPK aurkeztu dizkigun erreformen arteko beste bat besterik ez da. Lehenengo, prekarietatea gizarteratzeko kontratazioaren lan-erreforma gauzatu zuen; ondoren, pentsioen erreforma; handik gutxira, gaur egun “izozturik” dagoen lan-hitzarmenaren negoziatioaren erreforma, eta abar. Erreforma guztiak ildo neoliberal basatiaren menpe daude: lan harremanak normatik kanpo utziz, lan-merkatua malgutuz, inoiz baino erraztasun gehiago emanaz langileak modu merkean kaleratzeko, eta giza aurrekontuak murriztuz.

“Euskal Herriak erreformaren inposaketaren aurka eta LHEEren alde egin duen apustua da”

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Umeen txertoak borondatezkoak izan beharko liriateke?

Gora eta Behera

MAIATZEKO EURIAK




Ez dakit jendea ohartzen den, baina udaberriko eurik oso onak dira udarako eta udazkenerako. Iazko aldean, aurten, askoz ere euri gehiago egin du maiatzean, eta pozik nago horregatik.

ANTZUOLAKO URIK EZ



Dagoeneko hasi dituzte Urkulutik Antzuolara ura eroateko lanak. Berez ona da hori, baina pena ere ematen dit, aurrerantzean ezin izango dugulako herriko urrik edan. Jende askok hartuko du pena. Lizarraga auzoko lau iturburutatik hartutako ura, ur zoragarria, edan dugu orain arte antzuolarrok.

Aurrerantzean, Urkulukoa...



JESUS
ETXEBERRIA
Antzuolako
Udaltzaina

Koplak

Oinak izarretan

Mila zorion Alberto hamalau dira konpleto, gozamina ta sufrimendua saminarekin tarteko.

Hara zer talde majua aipatu ez arren nahikua, Lazkano eta Belokin lanak dauka kriston meritua.

Makalutik zinan hasi Annapurnaraino jauzi, bidean zenbat galdu duzun da zenbat duzun irabazi.

Azken bide hau hain latza sortzen zuen hainbat zalantza, zuk, bide ederra bihurtzen duzu sortzen denean hain gaitza.

Herriak a zer harrera sartua zaitu barnera, zure lanaz ta umiltasunaz harro dagoen seinale da.

Bada oinak izarretan ehun paraje ederretan, gure begiak gozatzeko jarraitu zuek lan honetan.

JOSEBA LARRAÑAGA

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martínez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Kanpoko harremanen ardura dauka EHNE sindikatuan eta, horrez gainera, eredu neoliberalen aurka dauden mundu mailako baserritarren Nekazarien Bidea elkarteko Europako koordinatzailea da Paul Nicholson. Jatorri eskoziarra dauka bere abizenak, baina gurasoak euskaldunak ditu. Mondragoen antolatutako Elkartasun Eguna dela eta, Monterronen izan zen joan den astean. Oraingoan, Txipren aurkitu dugu.

ENEKO AZKARATE

Zelatan Txipren?

Nazio Batuen barruan dagoen Janari eta Nekazaritza Agentziak, FAO erakundeak, gailurra antolatuko du hamar egun barru Erroman. Munduko janari eta nekazaritzako politikak aztertuko dira han. Baserritarrak oso garrantzitsua izango da gailur hori eta Nekazarien Bidea elkarteak beste gailur alternatibo bat antolatuko du Erroman. Munduko baserritarrak eta beste hainbat gobernu kanpoko erakunde batuko gara han, politika neoliberaleri aurre egiteko proposamen berriak bultzatu guran. Orain, Txipren, Europako baserritarrak elkartu gara, gailur horri begira, prestaketa lanak egiteko.

Joan zen astean, baina, Mondragoen izan zinen, Debagoieneko gobernu kanpoko elkarrekin antolatutako ekitaldiak zirela-eta.

Hala da, bai. Palestinarren egoeraren gainean egin nuen berba. Azken finean, kapitalismoaren eredu ekonomiko eta soziala globalizazioarekin lotuta dago, baina gerrarekin eta bake prozesuekin ere badauka zerikusirik. Eredu neoliberalen aurrean, herrialdeen janari subiranotasuna aldarrikatu gura dugu eta argi dago, palestinarrak janari subiranotasun hori galtzen ari direla, israeldarrek lurra kentzen dietelako.

Horixe da palestinarren arazoa, alegia, lurra galtzen ari direla?

Hori da gerraren arrazoi nagusia, hau da, israeldarrek lur berriak nahi dituztela eta, era berean, palestinarrak lur horietatik bota egin nahi dituztela. Azken arrazoiak beti da lurra, bai Palestinan eta baita mundu osoan ere, lurra nortasuna ematen diolako herriari.

Begi guztiak Israeli eta Palestinari begira zeudela, zu zeu Ramalan egon zinen, orain dela hilabete pasatxo, beste 30 bat nazioarteko begiralerekin batera, Yasser Arafatekin, Israelgo armadak setiatuta. Zela bizi izan zenituen egun haiek?

Guztira, 24 egun eman genituen setiatuta. Eta, gero, beste hiru egun atxilotuta, ia apiril osoa. Gaur egun esan dezaket, beldurra pasatu genuen arren, berriro ere egingo nuela. Oso harro nago egindakoak, ez bakarrik Arafat salbatu genuelako eta Arafat palestinari herriarendako sinboloa delako, baizik eta beste gauza bi garrantzitsu lortu genituelako: batetik, palestinarren kausa ezagunago egiten lagundu genuelako, eta bestetik, argi geratu delako benetako biktimak zeintzuk diren. Israeldarrek izan dira orain arte biktimak, baina benetako biktimak palestinarrak direla argi geratu da iritzia publi-



UBANE MADERA

Paul Nicholson

EHNE SINDIKATUKO ETA NEKAZARIEN BIDEA TALDEKO KIDEA

“Eredu neoliberalen aurrean, herrialdeen janari subiranotasuna aldarrikatu gura dugu”

GOBERNUEN JARRERA

“Arafat eta Palestinako herriaren itxaropena salbatzeaz bat, uste dut erakutsi dugula zelako zinismoa eta manipulazioa darabilten munduko gobernuak eta Nazio Batuak”

EHNE-REN KONGRESUA

“Maite Aristegik bost urte egin ditu dagoeneko idazkari nagusi lanetan, eta datorren ekainaren azken egunetan, Araban egingo dugun batzarrean, laga egingo du kargua”

koaren aurrean. Bestalde, giza mugimenduen papera aldarrikatzeko balio izan digu ekintza honek. Askok galdetuko zion bere buruari ea zer egiten zuen baserritar batek Arafatekin. Palestinako baserritarrei elkartasuna adieraztera eta laguntasuna ematera joan ginen Ramalara.

Ramala setiatuan Arafatekin batera egon zineten begiraleek salbatu zenuen palestinarren burua?

Bai, bai, hori argi dago. Ez dago zalantzarik. Gu sartu izan ez bagina, hurrengo

egunetan Israelgo armada sartuko zen. Eta, ez munduko gobernuak, ezta alderdi politikoek eta ezta Nazio Batuak ere, ez zuten ezer egingo. Arafat eta, oro har, palestinari herriaren itxaropena salbatzeaz gain, uste dut erakutsi dugula zelako zinismoa eta manipulazioa darabilten munduko gobernuak eta Nazio Batuak. Lurraldeak okupatzearen aurkako adierazpenak bai, baina Israelen aurka ez dute ezer egin. Esanak, politikak, baina eginak, ustelak edo hutsaren hurrengoak.

Azken egunotan egoerak hobera egin duela uste duzu?

Ez. Kontu honek ez dauka itxura onik eta luze joko du. Israelgo armadak Palestinan dirauen bitartean, ez da aukerarik izango palestinarrak. Egoera desesperatuetan, erantzunak ere desesperatuak izan ohi dira eta hori egunetik egunera ikusten ari gara atentatu suizidekin.

Zer irtenbide dauka, hortaz, ekialde hurbileko gatazka honek?

Kanpotik, irtenbide erraza ikusten diot gatazkari. Israeliek Osloko ituna errespetatuko balu eta Palestinak zein Israeliek euren aurkariak aintzat hartuko baliuzte, konponbidea errazagoa litzateke. Palestinarrek onartzen dute israeldar Estatua; berriz, argi dago israeldarrek ez dutela onartzen palestinari Estatua. Ez hori bakarrik, palestinarrak euren lurraldeetatik bota egin nahi ditu Israeliek. Jarrera horrek aldatzen ez badu, ez dago konponbiderik.

Eta, Amerikako Estatu Batuen laguntza duten heinean, zailago izango da Israeliek amore ematea, ezta?

Horrela da. Bestalde, Europako Batasunak ez dauka estrategia bateratu bat konponbiderako. Esaterako, ez dio presio ekonomikorik ezarri Israeli, besteak beste, Israelekin lehentasuneko akordioak dituelako, bai ekonomia arloan eta baita arlo militarrean. Horregatik, nire ustez, Europako Batasunak zeresan handia dauka konponbidean. Honakoa Europaren arazoa ere bada.

Yasser Arafatekin berba egiteko aukerarik izan zenuen?

Bai, sarritan, ia egunero, egiten genuen berba. Gizon gogorra da, erresistentzia egitera ohitua dagoena. Baina, era berean, nekatuta dago. Osasun aldetik ere makal samar dabil. Bere estrategia etsaiari eustea izan da eta, aurrerantzean ere, arazoei eusten saiatuko dira palestinarrak.

Batzeneko terrorista da Arafat. Beste batzeneko, ostera, agintari moderatua...

Inoiz ez diot entzun atentatu suiziden aldeko adierazpenik. Alderantziz, oso kritikoa da ekintza horiekiko. Baina, hausnarketa askoz ere sakonagoa egin behar genuke. Kontuan izan behar da Palestina erabat suntsitu egin dutela, azpiegiturak birrinduta utzi dituztela... Horren aurrean, zela eskatuko diogu Arafati bere herritarrek kontrolatu ditzala? Eta, beste hausnarketa bat: Ramalan egon garenak bakezaleak bagara, eta hori horrela aitortu dute mundu mailako hedabideek, orduan nortzuk dira terroristak? Palestinarrak ez dira errudun, biktima baizik.

Espainiako hedabideek zureganajo zuten hasiera batean, baina euskaldun abertzalea zinela konturatu zirenean, zurekiko jarrera aldatu egin zuten. Zer diozu horri?

Horretara nahikoa ohituta gaude. Euskal Herrian, ostera, bestelakoa izan da erantzuna, hedabideen, herritarren, sindikatuen eta abarren partetik. Elkartasun adierazpen ugari jaso ditut. Eskerrak horri. Osterantzean, oso gaitza izango litzateke egin dugun ahaleginari eustea.


Beldurrik pasatu zenuten Israelgo armadak setiatuta zeundetenean?

Bai, uneoro, gainera. Baina, hori ez da arazoa. Beldurrarekin bizitzen jakin behar da. Horrelako egoeretan beldurri inteligentek izaten eta norbere beldurrari diziplinaz erantzuten jakin behar dugu.

EHNEk laster egingo du Batzar Orokorra eta Maite Aristegik laga egingo dio idazkari nagusi izateari?

Maitek bost urte egin ditu dagoeneko idazkari nagusi lanetan, eta datorren ekainaren azken egunetan, Araban egingo dugun batzarrean, laga egingo du kargua. Kongresu aurreko fasean gaude oraintxe.

**NISSAN ALMERA
LEHENENGO 4 KUOTAK DOAN
60 HILEKO FINANTZAKETAN.
SARRERARIK GABE.
UTB % 6,54**



ALMERA

Badakizue nola lortu nuen nire lehenengo milioia? Bankuari eskatuta, jende guztiak bezala. Eta badakizue zeini eskatu nion? Baldintza onenak ematen zituenari. Eta horixe bera gertatzen da NISSAN-ekin ere: ALMERA bat eraman dezakezu sarrerarik ordaindu gabe, lehenengo 4 kuotak doan dira 60 hileko finantzaketan eta UTB % 6,54koa. Ezin da baldintza hoberik eskaini. Izan ere, ekonomia kontuak oso errazak dira eta konplikatzen saiatzen denak zerbait ezkutatu nahi izaten du. *Accordia España-ren eskaintza. Eskaintza honek 3, 4 eta 5 ateko Almera modeloentzat balio du eta 2002/07/31 arte. Irekiera-komisioa % 2,3. Nissan Motor España-k opari emandako kuotak. RBE 957/02

igurikapenen **GAINETIK**



SHIFT_expectations

**ALDIBI AUTOAK, S.A.
ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02
20500 ARRASATE**

Podiuma

Julen Masach | REALEKO PRESTATZAILE FISIKOA |

Bergararra jaiotzez, zazpi urte daramatza Realean, prestatzaile fisiko lanetan. Aurten, gainera, sekula baino erantzukizun handiagoa izan du, Olaberekin eta Zamorarekin batera taldearen ardura hartu zuen-eta, Toshack bota zutenean.

Taldea jaitziera postuetan hartu zenuten eta mailari eutsi ahal izan dio Realak.

Bederatzi partidu falta zirela eskaini ziguten taldea hartzea. Hirurok oso harreman estua daukagu eta talde bezala baietza eman genion zuzendari-tzari. Olabe aspalditik ezagutzen dut, Alaveseko prestatzailea izan nintzenean bera zelako atezaina eta Realean ere batera ibilitakoak garelako. Eta Zamora duela lau urtetik ezagutzen dut. Futbolaren gaineko antzeko ideiak dauzkagu. Azken batean, Zubietan egunero 12 bat ordu ematen ditugu eta eguneroko jardunaren ondorioz sortutako taldea izan da. Bagenekien zaila izango zela mailari eustea, baina jokalariek eta teknikoak elkarrekin izan gara lanean eta, zorionez, helburua lortu da.

Entrenatzeko orduan aldaketa asko egin behar izan duzue?

Ukitu txiki batzuk egin ditugu. Jokalariei ilusioa transmititu nahi izan diegu, denok *itsasontzi* berean



OXEL EROSTARBE

Julen Masach hizlari izan genuen zapatuan Bergaran.

“Jokalariei ilusioa transmititu nahi izan diegu, denok *itsasontzi* berean geundela ikus zezaten, eta kimika moduko bat lortu da”

“Realarendako beti ispilu izan den eskola batetik dator Denoueix, Nantesetik. Dauzkagun erreferentziak oso onak dira”

geundela ikus zezaten, eta kimika moduko bat lortu da. Jokalariekin entrenamendu espezifikoa egin ditugu eta emaitzak etorri dira.

Toshackekin erdi baztertuta egon zara?

Oso harreman ona daukat Johnekin. Inoiz ez du nahi izan prestatzaile fisiko batekin lan egitea, berak eraman izan du beti gai hori egon den taldeetan eta klubeko beste talde-

tako prestatzailea izatea proposatu zidan. Lehen taldearekin ibili ez arren asko ikasi dut.

Nolakoa da Olabe?

Titulu nazionala izan ez arren, %100 entrenatzailea da. Jokalaria zenean ere ikusten zitzaion heziketa berezi bat, oso ikastuna delako, eta argi utzi du lehen mailako talde bat zuzentzeko gai dela.

Eta Denoueix entrenatzaile berriarekin zer espero dezakegu?

Prestigio handiko entrenatzailea da eta Realarendako beti ispilu izan den eskola batetik dator, Nantesetik. 18 urtez jardun du han eta oso erreferentzia onak ditugu. Dena dela, horrek ez ditu emaitzak ziurtatzen baina guztiok ilusionatuta gaude.

Zein izan da Realazken hiru urtetan horren gaizki ibiltzeko arrazoia?

Lehen mailan berdintasuna da nagusi eta talde handiak (Real Madril, Bartzelona...) alde batera lagata, edozeinek izan dezake bolada txar bat, Realari gertatu izan zaion moduan. Ea datorren urtetik aurrera gauzak aldatzen diren...

Munduko txapelketa hasten da gaur.

Hasieratik sorpresak izango direla uste dut. Gaur egun edozein selekzio gauza inportanteak egiteko gai da eta Koreak eta Japonak, adibidez, oso maila altua lortu dute.


EDU MENDIBIL

Kirola argazkitan



AITOR ZABALETA GARAILE GORLAN

Aitor Zabaleta (Lola Telefónica) gidari bergararrak zapatuan jokaturako Gorlako Igoera irabazi zuen. Entrenamenduetan zein bi txanda ofizialetan bere nagusitasuna azaldu zuen. Pantxo Egozkueren eta Santamariaren aurretik sailkatu zen Aitor, 2:26:55 denborarekin. Turismoetan, Aitor Ramírez oñatiarra (BMW 320 ST) izan genuen onena, bosgarren sailkatu zen.



UBERA, ELGETAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETAN

Xabier Ubera elgetarrak (argazkian) Baezen aurka jokatu du domekan, Elgetako Lau t'erdiko Txapelketan. Jaialdia 11:00etan hasiko da eta aurretik beste bi partidu izango dira: kadete mailan, Azpiazu eta Uriarte izango dira aurrez aurre, eta 23 urtetik azpikoetan, Aurretenek eta Altunak neurutuko dituzte indarrak. Gaur, egubakoitza, pilota jaialdia izango da Elgetan, 21:15ean.



TRIALSINEKO PROBA URRUTXUKO ZELAIETAN

Zapatuan, trialsin proba jokatu zen Urrutxun, Oñatin. Zeliteko proba Benito Rosek irabazi zuen; BTT modalitatean, Alberto Gómezek; eta emakumezkoetan, Maitane Anduezak. Alebin mailan, Ekaitz Romero oñatiarra nagusitu zen, Markel Uriarte Gipuzkoako txapeldu aretxabaletarraren aurretik. Junior eta infantil mailatan, Jon González eta Aitor Badiola nagusitu ziren.



Lehengo eta gaurko futbolari buruz berbetan

Bergara KEko 50. urteurreneko ospakizunen barruan, lehengo eta gaurko futbola aztergai izan zuten zapatuan Bergarako udaletxean egindako mahai-inguruan. Iñaki de Mujika kazetari ezaguna izan zen moderatzaile lanetan, eta Juanjo Arrietak, Arantzabal aita-seekek, Julen Masachek eta Jesus Ibáñezek anekdota ugariz jositako hitzaldi entretenigarria egin zuten.

BABESLEA



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

Debagoieneko Triatloia ekainaren 8an

Antolatzaileek espero dute Urkulun 200 partaide inguru batzea

Datorren zapatuan, ekainaren 8an, Debagoieneko II. Triatloia jokatuko da. Antxintxika Debagoienak 200 partaide inguru batzeko asmoa azaldu zuen prentsurrekoan.

Joan den urtean jokatu zen lehenbizikoz Debagoieneko Triatloia, eta orduan jasotako erantzuna ikusita, aurten ere proba antolatzeari ekin diote Debagoieneko triatletek. Esan bezala, datorren zapatuan, hilaren 8an, jokatuko da, 16:00etatik aurrera. Lehenbizi, partaideek 1.500 metro igerian egin beharko dituzte; jarraian, 40 bizikletan, eta, bukatzeko, 10 kilometro korrika Arrasateko kaleetan. Euskal Zirkuiturako proba puntuagarria izango da. Zirkuituko lehen proba oraingo aste bukaeran jokatuko da, Sopelan.

“Antxintxika Debagoiena” taldean 40 lagun ari dira, eta Jose Mari Barrena taldeko presidentearen esanetan, lehenbiziko urtean emaitza benetan aipagarriak izan dira: Euskal Duatloi Txapelketan taldekako sailkapena irabazi dute. Baten izan ezik, gainerako proba guztietan nagusitu dira. Zuhaitz Ezpeletak eta Jon



Jose Mari Barrena eta Aitor Rementeria, Antxintxika Debagoiena triatloi taldeko ordezkariek, asteleheneko prentsurrekoan.

Aperribaik Basauriko eta Eibar-ko duatloiak irabazi zituzten, hurrenez hurren. Era berean, Espainiako Mendiko Duatloi Txa-

pelketan 3. postua eskuratu zuten. Aitor Rementeriak taldearen sorrerak ibarreko triatloiari emandako bultzada azpimarratu

eta Iñigo Igartuak taldeari emandako babes eskertu zuen.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

ARKU TIROKETA/OÑATI

Oñatiko Txantxiku Arkulari Taldeak antolatuta, Distantzia Ertaineko Txapelketa jokatuko da bihar, zapatua, Ibarren, 17:00etan. Oñatiko arkulariekin batera, Arrasatekoak, Eibarkoak, Durangokoak eta Zornotza-koak izango dira lehian. Partaideek 30 metroko eta 50 metroko distantziara egin beharko dituzte jaurtiketak.

ERRUGBIA/ARRASATE

Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketa jokatuko da bihar, zapatua, Arrasaten. Hamabi talde izango dira lehian, tartean, Iparraldeko hiru, Madrilgo Majadahonda, Valladolideko Minotauro, Eibar, Hernani, Zarautz eta Arrasateko Errugbi Taldea. Partiduak 15:00etatik aurrera jokatuko dira Atxabalpen. Txapelketarekin bat, Gargardo Jaia izango da herriko plazan jarriko duten karpan.

OÑATI/PILOTA

Ezti, domeka, profesional mailako pilota partiduak izango dira Oñatiko Zubikoa kiroldegian, arratsaldeko bostetatik aurrera. Partidu nagusian Xalagoñi III.a eta Titin III.a-Zezeaga bikoteak izango dira aurrez aurre. Sarrerak 20 euro balio du.

Oñatiko
Alde Zaharrea
Ongi
OSTATUA
18 logela
denak bainua, telebista eta aire egokituarekin
Elbarrituendako prestatua
Egongela eta gosariak hartzeko txokoa
Informazioa eta erreserbak:
Kale Zaharra, 19
Tel.: 943 71 82 85 • Faxa: 943 71 82 84
administracion@ongi.e.telefonica.net

ONGI TABERNA
berriz ere zuen artean!

**OÑATIN BERTAN,
BERRIZTUTAKO ERAIKINA EROSOTASUN GUZTIEKIN**



Aldape jatetxea

Eskaintza **Iturriotz 41 / ARRASATE**
943 79 70 41

- Eguneko menua
- Karta

Berezitasunak

- Porruak arrautza-irinetan pasatuta.
- Orein solomoa aran saltsan.
- Arraina plantxan.

Igandetan itxita



Añai erretegia

Eskaintza **Nardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01

- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak

- Bisigua parrillan
- Legatza
- Txuleta

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

Eskaintza **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 58

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Dukiena jatetxea

Eskaintza **Azkoaga auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 86

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Ortzi erretegia

Eskaintza **Angiozar auzoa / BERGARA**
943 76 22 68

- Eguneko menua eta karta
- Ezkontza eta jaunartzeak
- Enpresa bazkariak
- 120 lagunentzako jantokia

Berezitasunak

- Bildotsa burduntzian
- Arraina eta okela parrillan

Astelehen iluntzea eta asteartetan itxita



Taberna-Berri jatetxea

Eskaintza **Durana 24-26 / ARETXABALETA**
943 79 20 67 / 943 79 49 41

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Unzueta jatetxea


Eskaintza **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95

- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Eskaintza **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45

- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita

Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 31

Kultura
eta
aisialdia



Maiatzaren 31tik
ekainaren 7ra



GORPUZTI EGUNA

Erljioa eta folklorea uztartzen dituen Erdi Aroko ospakizuna

Domeka egun handia izango da Oñatirendako. Beste behin, 1478. urtea ezkerre, erlijioak eta folkloreak bat egingo dute Euskal Herriko jai zaharrenetako eta jatorrenetako bat berpizteko: Gorpuzti Eguna.

1478an moduan, ekainaren 2an, domekan, Oñatiko kaleak ihi berdezko-onañatirren 'ixaak'-alfonbra bihurtuko dira, eta handik pasatuko da Gorpuztiko prozesioa: dantzariak; San Migel Arkanjelua, Oñatiko zaindaria; Aldareko Jaunaren kofradia; Maria, Jesukristo eta haren apostoluak... Kanpaien, Musika Bandaren eta dantzarien kaskaineten hotsek alaitutako prozesio handi eta ospetsua izango da.

GOIZEAN, PROZESIOA

Gorpuzti Egunean liturgia katolikoko Eukaristiaren misterioa ospatzen da.

Gorpuzti jaiak bi zati ditu: goizekoa edo prozesioa eta arratsaldekoa edo Gorpuzti dantzak. Deigarria da prozesioa. Helburua da Guztiz Santua gurtzea. Goizean goizetik, baselizetatik eta etxe partikularretatik hainbat santuren irudiak eramaten dituzte San Migel parrokiara, prozesioak dantzariak lagun dituela. Aurten, gainera, San Joseren eta Ama Birjinaren irudiak zaharberritu egin dituzte, Gasteizen.

Meza nagusia egiten da parrokian, herriko udalbatza eta beste hainbat ordezkari han daudela. Bitartean, San

Migel Arkangeluaren eta hamabi apostoluen jantziak ipintzen dihardute beste hainbeste lagunek, prozesioan irteko. Hamabi apostoluek eta Jaungoikoak osatzen dute prozesio biziduna; gainera, Maria eta alferiza ere irteten dira, eta jakina, San Migel Arkangelua, Oñatiko zaindaria. Txistulariak, Oñatiko Banda, dantzariak, kanpai hots alaiak... lagun dituzte ibilbide osoan. Prozesioa plazan bukatzen da, parte hartzaileek Eukaristiari adorazioa eginaz.

DANTZEN ELEMENTU BEREIZGARRIA

Ikusgarriak eta benetan bereziak dira egun horretan egiten diren dantzak:

San Migel dantza, banakoa, launakoa, zortzikoa, arku dantza eta aureskua. Bezperatik hasten dira dantzariak herriko bazterrak alaitzen; egunean bertan, goizetik hasi eta arratsaldera arte jokatu dituzte dantza horiek.

Erljioak eta folkloreak eskua ematen diote elkarri, eta hori bereziki nabarmena da dantzak ikusterakoan. Dantzariak kaskainetak daramatzate, elementu berezi eta bitxia euskal folklorea. Iñaki Zumalde historialari onañatirren iritziz, dantzarien emanaldian badaude erlijio gurpenaren elementuak: adibidez, erreberentzia egiten diote Kristoren gorpuztari hainbat aldiz. /LEIRE KORTABARRIA

JAIK/ GORPUZTI EGUNeko OSPAKIZUNA IZANGO DA DOMEKAN, EKAINAREN 2AN, OÑATIN

Gorputzia, Oñatiko jai handia

MUSIKA ETA DANTZA ALAIK LAGUN, EUKARISTIAREN MISTERIOA GOGORATZEN DU GORPUZTI EGUNAK

Erdi Arotik datorrenez, Oñatiko Gorputzi Eguneko ospakizunak hainbat aldaketa izan ditu historian barrena. Edozelan ere, prozesioa, ekitaldi nagusia, bere horretan gorde dute oñatiarrek, hainbat herritarren eta, batez ere, Aldareko Jaunaren Kofradiaren lanari esker.

Iñaki Zumalde adituak dioenez, litekeena da gaur egungo Gorputzi Eguneko ospakizuna kristautasunak egokitutako antzinako ospakizun bat izatea.

ERLIJIOA IRAKATSI

Lehen, herriari erlijioa irakasteko era zen Gorputzi jaia, Bibliako antzezpenen bidez. Zumalderen ustez, baliteke gaurko Gorputziak ohitura haren lekukoa jaso izana. Aldatu ez dena da San Migel Arkanjeluaaren protagonismoa, Oñatiren ikur.



Jesukristo eta hamabi apostoluak Santa Anatik parrokiara bidean doaz.

PLAZAOLA

JOXE ERRASTI / SAN MIGEL ARKANJELUA

“Urteko damua egiten dut”

Aurten, 37. aldiz irtengo da prozesioan Joxe Errasti oñatiarra, San Migel Arkanjeluaaren 23 kiloko armada soinean duela.

Penagarria izango da armada eta kareta eramatea.

Bai, uhal mordoia, kaskoa, maskara... Gauza asko eta mingarriak dira. Baina nik sakrifizio txiki horrekin egiten dut urte osoko onezko damua.

Zuretako esanahi handia du, hortaz, Gorputzi jaiak...

Batzuen ustez, txorimaloz jantzita egiten dugun prozesio bat izango da; baina sinismenez begiratzen bazaio, zentzu izpiritual osoa hartzen du. Auto sakramental bat da, eta Oñatiko herriko jai handi bat, erlijioa eta fol-



Joxe Errasti.

klorea nahasten dituen. Fede onez eta sinismenez betetako jende asko erakartzen eta mugitzen du Gorputzi jaiak. Jai horri eutsi behar diogula argi daukat.

LEIRE KORTABARRIA



Zuazola-Larraña Oñatiko b.h. institutua



Heziketa Zikloak D eredua



Fabrikazio mekanikoa
ERDI MAILAKOA



Gizarte eta kultur animazioa
GOI MAILAKOA



Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa
ERDI MAILAKOA



Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea
ERDI MAILAKOA

AURREMATRIKULAZIOA

Ekainaren 3tik-12ra

Informazio gehiago:
www.onati.net

Zuazola Ikastetxea
Aita madina z/g
943 78 12 68

Larraña Ikastetxea
San Lorenzo z/g
943 78 21 50

ERAKUSKETAK/ 'HYSTERIA' ARGAZKI ERAKUSKETA IKUSTEKO AUKERA EGONGO DA OÑATIN

NIREAUKERA

Munduko rocka, argazkitan

HAINBAT TALDEK EUSKAL HERRIAN EMANDAKO KONTZERTUETAKO ARGAZKIAK, ERAKUSKETAN

Hysteria. Horrela deitzen da, hain zuzen ere, ekainaren 6tik aurrera Oñatin ikusteko aukera izango dugun argazki erakusketa. Hamasei bat irudik osatzen dute Oskar Pereira argazkilari zumarragarrik rockaren gainean prestatu duen bilduma horrek.

Zergatik izenburu hori rockaren gaineko hamasei argazkiko bildumarendako? Honelaxe diosku Oskar Pereira argazkilariak: "Musikaren mundua kaotikoa eta zoroa da. Zirko antzeko bat da: jendeak zorakeriak ikusteko ordaintzen du, eta eurek, musikariek, alegia, zorakeriak egiten dituzte".

Rock musikariak kontzertuetan, bai, baina bai eta kamineroak ere, jarraitzaileak euren idoloen zain, kazetariak, kontzertuen aurretik egin beharreko prestaketak... horiek guztiak ikusi ahal izango ditugu ekainaren 6an Oñatira etorriko den erakusketa ibiltari horretan. Elkar-Hezi ikastetxeak ekarri du, bere IV. kultura jardunaldien barne. Edizio hau ixterakoan, ikastetxeak ez zuen erabaki euren egoitzan ala herriko hainbat tabernatan ipini erakusketa; baina ikasleek ez ezik, debagoiendar guztiok izango dugu ikusteko modua.

IRUDIAREN GARRANTZIA

Rock musika da *Hysteria* bildumako protagonista. Oskarrek, 35 urteko zumarragarrik, betidanik izan du musika estilo



OSKAR PEREIRA

"Rocka eta argazkigintza elkarrekin betegarriak dira", diosku erakusketako argazkien egileak.

horrekiko zaletasun handia: "Gazteago nintzenez, talde baten jotzen nuen; gero, bertan behera utzi behar izan nuen, baina zaletasunari eusten diot", esaten du.

Argazkiak Bergarako Jam aretoan -"Europako areto onenatariko bat", Pereiraren iritzi- eta Euskal Herriko beste zenbait aretotan daude aterata. The Demoniacs, The Hot Dogs, Ocean Colour Scene, Texas Terri, The Dirty Jac-


kets, eta beste talde batzuen emandakiek irudiak harrapatu zituen Oskarrek. Lan hori zaila dela diosku: artistek keinu esanguratsu bat egiteko zain izan behar da argazkilaria.

Argazkilaritzaren eta rockaren arteko harremana begi-bistan geratzen da: "Musikariek eta diskoetxeek badakite zein garrantzitsua den irudia promozioa egiteko orduan", dio egileak.

HELBURU DIDAKTIKOA


Erakusketa hori Elkar-Hezi ikastetxearen IV. Kultura Jardunaldietako ekitaldi bat da; hortaz, helburu didaktikoa ere badu: "Hain ezagunak ez diren musika taldeen gaineko ikerketa egin edo zerbait ikas dezakete ikasleek", dio Andoni Salamero ikastetxeko zuzendariak.

LEIRE KORTABARRIA



'LA MEMORIA INSUMISA' N. Sartorius/J. Alfaya

Frankismoaren gaineko beste ikuspegi bat ematen du *La memoria insumisa* liburua. Ez da liburu historiko klasiko horietakoa, berrogei urteko diktadura garaian oinarritutako hausnarketa liburua baizik. Are gehiago, pedagogikoa badela ere esango nuke. Horregatik saiatzen naiz nire ikasleek liburu horren atal batzuk irakur ditzaten. Egileek Frankoren diktadorekin dugun "amnesia kolektibotik" atera nahi gaituzte. Hemen oraindik Frankismo garaiko ardura politiko eta moralak eskatzeko gaude. Oroimen hori galtzen badugu, garai hartako historia manipulatu sortzeko arriskuan gaude. /L.K.



Iñigo Ramírez de Okariz

Antzuolarra da eta Mondragón Unibertsitateko Humanitate Fakultateko irakaslea.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Gida



HAUR TXIKIENTZAKO LIBURU GIDA

Mondragón Unibertsitatea
107 orrialde

Liburuak gozatzeko aldia ez da irakurketaren ikaste sistematikoarekin bakarrik hasten, baizik eta askoz ere lehenago: umea lehenengo pausoak ematen, lehen hitzak dastatzen eta lehen irudiak ikusten hasten den unetik hasten da. Gaur egun, baieztatu daiteke ezinbesteko objektu estetikoak izatera ere iritsi dela liburu txikiendako, hau da, objektu komunikagarri ordezkaezina. Merkaturan dagoen guztia ez da, hala ere, ona, eta gida horrek horixe erakutsiko digu: adituek egindako sailkapen bati erantzunez liburuak aukeratzeko, umeek gozatzeko.

CD-liburua / Argazkigintza



ATEKALEUN

Xabier Erkizia eta Asier Gogortza
Ertz
Berako Arte gunea

Larrun mendiaren magalean, Bera eta Sara herriek mugatu egiten duten tokiari emandako izena da Atekaleun. XX. mendean inguru hauetan hain hedatua zegoen kontrabandotik heldu zaio deitura, gaueko lanean ibiltzen zirenak arrokak hauen arteko pasabidea erabiltzen zuten-eta maiz. Ataka leunenetakoa ei zen.

Proiektu horretan, bide hori abiapuntutzat hartuta, inguruak erakutsi eta irakatsi nahi izan dute argazkien eta musikaren bitartez. Bideak, errekek eta zeruak. Mugak eta pasabideak, historiaren atakak. Oso gomendagarria, bai ikusteko eta bai entzuteko.

DISKOA / Musika beltza



ESPERIENTZIEN ETORBIDETIK

Selektah Kolektiboa
Metak
17 kantu

Selektah Kolektiboa musika beltza oso-osorik ezagutarazteko asmoarekin jaioa da egitasmo edo talde irekia dugu. Euskaraz sortu den lehen *hip-hop* taldea da Selektah Kolektiboa.

Wankak, DZK, Moltek eta Daddy Jeff-ek bigarren lana dakarkigute. Kataluniako La Porta estudioetan grabatu du Tonyk, besteak beste, 7Notas7Colores, Eddie La Sombra eta La Malarekin lan egindakoa. Aurreko lanaren harrera ona hobetzeraz dator honakoa; izan ere, taldeak *Esperientzien Etorbidetik* izendatu du azkeneko lana. Ez zaie arrazoirik falta.

Mai. 31-Eka. 7

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77

ANTZERKIA

BERGARA

► **Hau Paraderoa antzezlana** izango da gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean.

OÑATI

► **El uno y el otro antzezlana** izango da gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.
► **Ekidazu umeendako antzerkia** jokatu du Kukubiltxo taldeak bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:30ean.
► **Ondo esan beharko ikuskizuna** eskainiko du Ramon Agirrek hilaren 7an udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Arrasateko Gaztetxeko kontzertuen historia karteletan: 1991tik gaur eguneraino** izeneko erakusketa dago zabalik gaztetxean.
► **Amalurraren defentsan** erakusketak izango da ikusgai Monterron kultura etxean ekainaren 3tik 8ra bitartean.

OÑATI

► **Rockaren gaineko** argazki erakusketa antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak. Ekainaren 6tik aurrera egongo da ikusteko aukera.

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Orkestra Gazteak eta Antzuola-ko Abesbatza Gazteak** emanaldia egongo dute gaur, egubakoitza, elizan, 20:00etatik aurrera.

ARRASATE

► **XV. Eskola Arteko Abesbatzen Topaketa** izango da bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:00etatik aurrera, Arizmendi Ikastolak antolatuta.

► **Sen eta Onddo taldeen** kontzertua izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30etik aurrera.
► **Biolontxelo eta biola kontzertua** izango da Arrasate Musikalen ekainaren 6an, 18:30ean.

BERGARA

► **The Masons** taldearen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.
► **Hard-core kontzertua** izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Honako taldeek joko dute: Zinc (Madril), Erantzun (Zarautz) eta Cobory (Oretera). Sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.
► **Gaetano Parisio, Monika Osmo, Pedro Suite, Higinio eta Alberto Okiñenaren** emanaldia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan.
► **Oi! estiloko kontzertua** izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Es-Kontrol (Italia), Attacca Briss (Italia) eta Suspenders (Bilbo) taldeek joko dute.
► **Soledad Brothers eta Inmortal lee County Killers** taldeen kontzertua izango da datorren egubakoitzean, hilaren 7an, Jam aretoan, 22:00etan.

ELGETA

► **Sei urte, Nabari, Ainke, At, Sastraka eta Damudot taldeen** kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 21:00etan, 200 Baietz! biraren barne. Aurretik, 20:00etatik aurrera, berrehun litro kalimotxo banatuko dituzte.

ESKORATZA

► **Ileon eta Code taldeen** kontzertua izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 21:30ean. Sarrera doan izango da

LEHIAKETAK

ESKORATZA

► **San Pedro jaietarako Esaldi Lehiaketa** deitu du Udalak. Udaletxe-ko eta kultura etxean ipiniko dituzten postontzietan sartu beharko dituzue esaldiok, ekainaren 2ra bitartean. Taldeka hartu beharko duzue parte.

EUSKADI

► **CAF-Elhuyar Zientzia Dibulgaziorako IX. Sariak** deitu dituzte. Argibide gehiagorako, deitu 943 36 30 40 telefonora edo idatzi aldizkaria@elhuyar.com helbidera.

OÑATI

► **Txantxiku Arkulariak Taldeak** Tiroketa Txapelketa antolatu du. Bihar izango da, zapatua, Ibarra, 17:00etan.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Murruxok mendi martxa antolatu du ekainaren 9rako**, eta hura prestatzeko bilera egongo dute hilaren 4an, euren egoitzan, 19:00etan.

ARRASATE

► **Musakolako Ikastolaren inaugurazioa** izango da bihar, zapatua, Arizmendik antolatuta.
► **Abiadura Handiko Trenaren aurkako mendi martxa** izango da bihar, zapatua, Untzillara. 09:30ean,

Arbolapetatik, eta 10:00etan, Garagar-tzatik irtengo da.

► **Udako udaleku programa abian du Txatxilipurdik.** Leku mugatuak egongo dira, eta izena emateko azken eguna ekainaren 18a izango da. Horretarako, jo Pablo Uranga kaleko 6. zenbakira, honako orduetan: 10:00-13:00 eta 16:30-19:30.

BERGARA

► **Futbolin Txapelketa** antolatu dute Oilagorra eta Pol-Pol tabernek. Ekainaren 2an izango da, domekan, 20:00etatik aurrera.
► **Jolasleku Ibiltaria 2002 programa** abian jarri du Jardun elkarteak. 6 eta 12 urte bitarteko umeendako. Ekainaren 7an, Espoioian izango dira.

ELGETA

► **Euskal Herriko mendizaleen batzarra** izango da bihar, zapatua, Espoioian, 09:00etan.

ESKORATZA

► **Udaleku irekiak eta Gaztekantoi aisialdi egitasmoak** antolatu ditu Udalak uztaileko. Lehenengo 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako

izango da; bigarrena, 13-16 urte bitartekoendako. Izena emateko, jo kultura etxera: 11:00-13:00 edo 14:00-17:00. Maiatzaren 29a da mugaeguna.

EUSKADI

► **Jose Antonio Loidi ikerketa beka** deitu du Irungo Udalak. 9.015 euroko beka izango da. Argibideetarako, deitu 943 64 92 50 telefonora edo jo www.irun.org orrira jo.

GIPUZKOA

► **Organo emaileen eguna denez, informazio kanpaina** egongo du Gipuzkoako Alcer elkarteak ekainaren 3tik 9ra bitartean.

OÑATI

► **Gaztetxeen iragana, oraina eta etorkizuna aztergai** mahai-ingurua antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak martitzenerako, hilaren 4rako, herriko kultura etxean.
► **Entzia mendilerroa irteera** antolatu du Aloña Mendiko Mendi Taldeak ekainaren 9rako. Izena emateko azken eguna ekainaren 6a izango da.
► **Zabalik dago uztaileko udaleku irekietan parte hartzeko** matrikula-



► JAIK

EUSKALKIAREN EGUNA IZANGO DA BIHAR, ZAPATUA, ELGETAN

Euskalkiaren Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Elgetan. Goibeko Kultura Elkarteak eta Badihardugu Euskara Elkarteak antolatu dute Euskalkiaren Eguna. Honako egitaraua izango dute: 09:30ean, Badiharduguk batzarra egongo du; 11:00etan, berbaldi-eztabaida irekia; 13:15ean, *Deba ibarretik euskararen herrira* liburuaren aurkezpena; 14:30ean, bazkaria; eta arratsaldeko ekitaldiei dagokienez, umeendako antzerki bat (*Mari Sorgin* izenekoa), herri afaria eta 23:00etan, Tapia eta Leturiarekin erromeria izango dira.

Noiz: Bihar, zapatua. **Non:** Elgetan. **Izenematea:** Euskaraerabiler@deba.net-en eta Elgetako tabernetan.

M

MEMESA SL

Industri hornidurak

943 71 24 25

AIPAGARRI

Jon Iñaki Lasa

MONDRAGOE

Jon Iñaki eta Nitro jarri beharko genuke goiko izenburuan. Club de Education d'Abosk (Frantzia) antolatutako Txakur Heziketako Txapelketa irabazi zuten biek, joan zen asteburuan. Hamazazpi txakur aritu ziren lehian eta Nitrok irabazi zuen. Jon Iñaki Lasa Mondragon Miraouhs taldeko kidea da.



Xabier Nafarrate

ARAMAIO

Zigoitian ospatuko dute aurten Araba Euskaraz ikastolen festa. Xabier Nafarrate aramaioarra ari da festa horretako koordinatzaile lanetan. Berez aramaioarra den arren, hogeita bat urte darama Amurion bizi izaten. Gogoratu ezazue ekainaren 16an, domekan, ospatuko dute Araba Euskaraz.



Jone Sagasta

MONDRAGOE

Galtzagorri elkarteak antolatutako literatur lehiaketan lehenengo saria eskuratu du Jone Sagasta gazte mondragoetarrak, poesiaren sailean, Parisera bidaia lanarekin. Euskaldunon Egunkarian argitaratu dituzte lehiakideen lan guztiak. Ekainaren 7an Donostian jasoko du saria Jonek.



JAIOTAKOAK

Galder Adrian Isasmendi Martínez. Eskoriatzan, apirilaren 16an.
Lur Azkarate Arrieta. Antzuolan, apirilaren 20an.
Oier Sánchez Lekuona. Bergaran, maiatzaren 19an.
Marina García Carrasco. Aretxabaletan, maiatzaren 20an.
Ander Zengotita Basauri. Bergaran, maiatzaren 21ean.
Garazi Parra González. Aramaion, maiatzaren 22an.
Nora Ferreiro Guridi. Arrasaten, maiatzaren 23an.
Eduarne Murua Errasti. Arrasaten, maiatzaren 27an.

HILDAKOAK

Juana Vitoria Zangitu. Arrasaten, maiatzaren 23an. 81 urte.
Irene Iriarte Beitia. Arrasaten, maiatzaren 25ean. 87 urte.
Jose Pagaldai Elortza. Arrasaten, maiatzaren 25ean. 78 urte.
Miguel Igartua Markuleta. Oñatin, maiatzaren 25ean. 69 urte.
Maria Iturbe Otadui. Arrasaten, maiatzaren 26an. 86 urte.
Eugenia Gandiaga Aranberria. Arrasaten, 27an. 88 urte.
Santiago Filarmendi Jonsansoro. Aretxabaletan, 27an. 45 urte.
Isabel Pinacho Delgado. Arrasaten, maiatzaren 27an. 101 urte.
Maria Carmona Nogales. Arrasaten, maiatzaren 28an. 94 urte.
Jose Mari Biain Betoitze. Bergaran, maiatzaren 29ean. 63 urte.
Julian Aiaitui Igarzabal. Bergaran, maiatzaren 29ean. 70 urte.
Maria Murgoitio Pildain. Arrasaten, maiatzaren 29an. 77 urte.



Santiago Bengoa eta Juli Elortza aretxabaletarrak 1952ko maiatzaren 31n ezkondu ziren. Orain, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Bihar, zapatua, lehenengo meza izango dute, eta ondoren bazkaria egingo dute senitartekoekin batera. Zorionak familia osoaren partez!



Antonio Valverde eta Aurelia Lizundia antzuolarrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte. 1952ko maiatzaren 22an ezkondu ziren. Orain, 50. urteurrena ospatuko dute, ekainaren 8an, euren senitartekoekin. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, anai-arreben partez!



Gregorio Muruamendiaraz eta Maria Larrañaga bergararrek 60 urte bete dituzte ezkondata maiatzaren 21ean. Urteurren hori ospatzeko bazkaria egin zuten Elosuko elkartearen senitartekoekin batera. Zorionak, bikote, zuen seme-albaren eta biloben partez!

ESKER ONA

Serafina Agiriano Kortazar

Bergaran hil zen 2002ko apirilaren 29an, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Isabel Pinacho Delgado


Arrasaten hil zen 2002ko maiatzaren 27an, 101 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Ander Zengotita Basauri bergararra eta Nerea ama, elorrioarra. Maiatzaren 21ean jaio zen Ander, eta 3,235 kilo pisatu zuen. Jon Xabier da aita, elgoibartarra.



Garazi Parra González aramaioarra, Gaizka anaia eta Bego amarekin, mondragoetarra. 22an jaio zen, eta 3,265 kilo pisatu zuen. Carlos da aita, aramaioarra.

TORTURARik ez!
denon erantzunkizuna da

MANIFESTAZIO IXILA

Autobuserako izena emateko eskualdeko Arranoetan

Ekainak 8 • 18:00
Aita Donosti plaza • BILBO

3 egunean behin pertsona 1 komisarian torturatua izaten da

Euskal Herriko Torturatuak



ASTEBUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 1

Laino gutxi izango ditugu zapatuan, eta baliteke ostarteak nagusitzea. Mendialdean, baina, laino gehiago izango du, eta euri txikia egin dezake. Temperaturak gora egingo du. Goizeko lehen orduetan behelainoa izango du. Haizea hegoalde-ekialdetik ibiliko da.



DOMEKA, 2

Domeka, berriz, oso egun lainotsua izango du. Euria ere egingo du, eta gainera ekaitz arriskua izango du. Hoztu egingo du giroa, temperaturak pixka bat behera egingo du. Haizea, berriz, ipar mendebaldetik ibiliko da, baina arin ibiliko da.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

14,5º C

ILARGIAREN ALDIAK: EKAINA



EGUZKIA: EKAINAREN 2a



Nafarroako Erribera:

Lainoak eta ostarteak.

Errioxa: Lainoak eta ostarteak.

Pirinioak: Ekaitz arriskua.

Nafarroako Erribera:

Egun lainotsua.

Errioxa: Egun euritsua.

Pirinioak: Egun euritsua.

URKULUKO URTEGIA

Oraingo astean ere, gutxi bada ere, behera egin du berritua Urkuluko urtegiko ur mailak. Joan zen astean %76,04 zen ur maila; oraingo astean, berriz, %75,37.

% 75,3

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

MEZAK

Astegunetan

08:30, 12:00.

Zapatuetan

08:30, 12:00, 19:30.

Domeka eta jaiegunetan

09:00, 10:00, 12:00 (nagusia),

13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

BEHARREZKO TELEFONOAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Table listing phone numbers for OSAKIDETZA, DIA, and GURUTZE GORRIA.

Table listing phone numbers for ERZAITZINTZA and OSASUN ETXEEK.

Table listing phone numbers for ARRASATEKO OSPITALEA, ARAMAIO, and ARETXABAleta.

Table listing phone numbers for BERGARA, ELGETA, and HIES EKIMENA.

Table listing phone numbers for Udaltekoak and GARRAIOAK.

Table listing phone numbers for PESA and TAXIAK.

Table listing phone numbers for BERGARA, Eskoriatza, and RENFE.

DEBAGOIENA

Table listing phone numbers for Mankomunitatea, Abere hiltegia, and Euskara Taldeak.

Table listing phone numbers for Debagune, Arrasate/AED, and Kirolegiak.

Table listing phone numbers for ARAMAIO, ARRASATE, and BERGARA.

Table listing phone numbers for Kultura Etxeak, Antzuola, and Eskoriatza.

Table listing phone numbers for Udalak, Antzuola, and Eskoriatza.

ZENBAKISARITUAK

Table for BONOLOTOA and LOTERIA PRIMITIBOA with various numbers.

Table for ONCE with various numbers and series.

Logos and names of local government entities like Erakunde, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritz, etc.

AUTOBUSORDUTEGIA/PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igandeak

Table for DONOSTIA-GASTEIZ bus routes.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

Table for GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA bus routes.

DONOSTIA-BILBO

Table for DONOSTIA-BILBO bus routes.

BILBO-DONOSTIA

Table for BILBO-DONOSTIA bus routes.

OÑATI-ARRASATE-BILBO

Table for OÑATI-ARRASATE-BILBO bus routes.

BERGARA-ARRASATE-BILBO

Table for BERGARA-ARRASATE-BILBO bus routes.

BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABAleta-ESKORIATZA

Table for BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABAleta-ESKORIATZA bus routes.

ESKORIATZA-ARETXABAleta-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR

Table for ESCORIATZA-ARETXABAleta-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR bus routes.


BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA

Table for BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA bus routes.

IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR

Table for IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR bus routes.

Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

ENEKO AZKARATE/

'ASTEBETE'

“Arraro ikusten dut neure burua telebistan”

Urtetan *Berrigara* astekariko zuzendaria izan zen. Gaur egun, berriz, GOIENKARIA-ko zuzendaria da. Horrez gainera, GOITBko *Astebete* saioan ere parte hartzen du Enekok.

Nolatan hasi zinen *Astebete*-n kolaboratzaile lanak egiten?

Goienaren eta GOITBren sorreraren atarian, 1999ko neguan, ibarreko herri hedabideetan lanean genbiltzan kazetarien arteko harremanak ugazituz eta lankidetzara sendotuz joan ziren. Horrela, *Astebete* aurkeztea proposatu zidaten, eta halaxe hasi nintzen.

Debagoienean astebetek emanen du saio bat egiteko adina berri?

Bai, jakina, baita saio luzeagoa egiteko adina ere. Baina kontua da zelako saioa egin nahi dugun eta saio hori egiteko zein bitarteko ditugun.

Zein berrik eman du orain arte zeresan handien *Astebete*-n?

ATBko eta GOITBko saio zaharretakoa da; hortaz, azken bi urteotako *Astebete*-z egin beharko nizuke berba. Duela gutxi kontu bat azpimarratuko nuke: Elgetako estankokoa hil zutenekoa.

Zuk zelan ikusten duzu zeure burua telebistan?

Oraindik ere oso arrotz egiten zait eta ez zait gustatzen neure burua telebistan ikustea, baina tira.

GOITBn zein beste saiotan parte hartuko zenuke?

Kaleko kazetari lanetan ibiliko nintzateke gustura; magazin baten..., aurkezle lanetan ez den beste edozertan.

GOIENKARIA-ko zuzendari ala *Astebete*-n kolaboratzaile, zer gurago?

Irratian ere ibilia naiz eta gustuko dut, baina, batez ere, prentsan jardun izan dut beti. Horrekin geratzen naiz.

AMAGOIA LASAGABASTER



Asteko programazioa/Maiatza 31-Ekaina 6

EGUBAKOITZA 31	ZAPATUA 1	DOMEKA 2	ASTELEHENA 3	MARTITZENA 4	EGUAZTENA 5	EGUENA 6
14:00 Berriak 14:30 Sarrera doan 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Astebete Marijo Deogracias kazetariak asteko albiste nagusiak gainbegiratu ditu. 21:00 Soinuz blai 21:30 Berriak	14:00 Xeheberri Iparrorratza Maroko globoz zeharkatuko dugu Urko Garmendirekin. Ekilan Ibarreko enpresa esparrua mahai gaineratuko du Alberto Gorritiberea irratia esatariak. Sarrera doan Soinuz blai Astebete	14:00 Xeheberri Iparrorratza Maroko globoz zeharkatuko dugu Urko Garmendirekin. Ekilan Ibarreko enpresa esparrua mahai gaineratuko du Alberto Gorritiberea irratia esatariak. Sarrera doan Soinuz blai Astebete	14:00 Berriak 14:30 Astebete 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Goienasport Futbol denboraldia bukatu dute dagoneko ibarreko taldek, baina beste hainbat kirol izango ditu hizpide Julen Iriondo kazetariak. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Goienasport 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Xeheberri 21:00 Iparrorratza 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Xeheberri 15:00 Iparrorratza 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Alkatearekin berbetan 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Alkatearekin berbetan 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan Amagoia Lasagabaster kazetari eta aurkezleak hainbat proposamen egingo digu asteari begira. 21:00 Soinuz blai 21:30 Berriak

TELEBEGI/Edorta Arana

Xelebreixon

Pintxoek lunch batean baino gutxiago irauten dute telebista saio gehienek. Denboraldiaren hasieran aurkeztzen zaizkigun hamar programatik zortzi ez dira udaberrira helden. Baina, hori bai, jendearen arretarako formularekin asmatzen duena aberastu egiten da. Tele 5eko eta Antena 3ko programatzaileek eskuetatik alde egiten laga zuten eta damututa daude, zeharo. Europartasuna baino, tokian tokiko nazionalismoa indartzeko balio frogatua duen lehiaketa horrek, aurtengoan, marka guztiak hautsi ditu. Eta, noski, ez nabil espainiar ordezkariak galdu dituen kiloez, konpondu dituen haginez ala saldu dituen diskoez, baizik eta TB programaren audientzia maila historikoaz.

Eurovisión lehiaketak eskuratu zuen, geure artean ere, lehengo zapatuko hamar ikusletik zortziren atentzia. Hori bai ospatzeko modukoa.

KAMERA AURREAN



“Gaixotasun mentalen bat duten pertsonak ez dituzte kontuan hartzen, ez dituzte inon kontratatzen; guk ikusi dugu lanerako gai direla.”

Jon Sánchez / Bergarako Gureak lantegiko ardura.
“ASTEBETE” (2002-05-24)



“Debagoieneko eskubaloi taldeok lan handia egiten ari gara; emaitzak, behintzat, hor daude.”

Edu Orgaz / Bergarako eskubaloi entrenatzailea
“GOIENASPORT” (2002-05-27)

Eta zu, zergatik ez?

Telebistako aurkezle izan nahi baduzu deitu, atearik zabalik dituzu zure ibarreko telebistan.

Otalora Lizentziaduna 31 • ARRASATE • 943 71 2393

Goitb
Goiena Telebista

HEZKUNTZA DEBAGOIENEAN/

Arizmendi Ikastolan Lanbide Heziketa

12 urteko eskarmentuak LHren munduan Arizmendiren kalitatezko hezkuntza bermatzen dute.

Ekainaren 3an irekiko da epea Arizmendiko Lanbide Heziketan aurrematrikula egiteko.

Azken urteotan ikastetxeek eta erakundeek egin duten esfortzuarri esker eta Lanbide Heziketa bukatutakoan dauden lan aukera handiengatik, ikasketa horiek arrakasta handieneko hezkuntza sistemen mailan daude.

Hori dela eta, gero eta gazte gehiagok hautatzen dute Lanbide Heziketa; izan ere, praktika eta teoria lantzen dituzte eta ikasketa horiek bide emango diete lan esparrura salto egiteko, lehenengo egunetik lana ondo egiteko segurtasunarekin eta gaitasunarekin.



Praktikak enpresetan

Praktikak egiteko programak ditugu, egindako ikasketekin lotutako sektoreko punta-puntako enpresetan eta estatu mailan nahiz Europa mailan, Leonardo programaren bidez.



Etorkizuneko titulazioak

Euskal Herriko Lanbide Heziketako hamar ikasletik zortzik ikasketak amaitu eta bi hilabete igaro aurretik lana aurkitzen dute.

(Egailanek egindako ikerketaren arabera).

Berrikuntza pedagogikoa

Gure helburua ikaslearen prestakuntza gaitua lortzea da eta, horretarako, irakaskuntza gaurkotua erabiltzen dugu, lan munduko egungo nahiz etorkizuneko beharretan oinarritutakoa.

Zerbitzuak

Azpiegitura teknikoa:

- Análisi Fisiko-Kimikoetarako laborategiak
- Análisi mikrobiologikoetarako laborategia
- Erizaintzako tailerra
- Marrazki eta CAD gela
- Informatika gelak
- Kirol-instalakuntzak

Beste zerbitzu eta jarduerak

- Jangela.
- Orientabide departamentua.
- Kirol jarduerak.
- Lan poltsa.
- Ikasten ari diren bitartean lan egiteko aukera dute ikasleek.
- Egindako ikasketak osatzen dituzten ikastaroak.
- Lanerako prestakuntzako programak. INEMek homologatutako zentro kolaboratzailea.

GURE ESKAINTZA

Lanbide irakaskuntzaren esparruan egiten dugun eskaintza lau arlotan zatituta dago: Osasuna, Kirola, Ingurugiroa eta Eraikuntza eta obra zibila.

osasungintza

- Erizaintza zainketa auxiliarrak. ERDI MAILAKOA
- Osasungintza dokumentazioa. GOI MAILAKOA

Lanbide Heziketaren barnean arlorik bokazionalena da. Zerbitzuen esparru honetako eskaintza handiari erantzun nahian, ikasleak lanpostu publikoak nahiz pribatuak betetzeko gaitzen ditugu.

gorputz eta kirol ekintzak

- Kirolaren eta ekintza fisikoen animazioa. GOI MAILAKOA

XXI. mendeko gizarteak gero eta garrantzi handiagoa ematen die aisialdiko ekintzei eta, horregatik, kirol jardueren esparruan gaitasun handiz lan egingo duten profesionalak prestatzea beharrezkoa da. Modulu desberdinak eskaintzen dira, baina guztien helburua kirolerako erakunde publikoetan, kirol zerbitzuetako enpresetan, klubetan eta izaera sozialeko elkarteetan, kirol federazioetan etab. lan egiteko profesionalak eskaintzea da.

ingurugiroa

- Ingurugiro Kimika. • Ingurugiro Osasuna. GOI MAILAKOA

XXI. mendeko bizitzeko beharrezko dugun ingurugiroaren babesari buruzko gogoeta sakonagoa ekarri du. Hala, bada, gure planetaren zainketa areagotu beharra dugu eta, horretarako, birziklatzea eta gutxiago kutsatuko duten baliabide berriak sustatu behar ditugu. Horregatik, esparru horretan gaitutako profesionalak gero eta beharrezkoagoak dira enpresetan eta gizartean. Zehazki, Arizmendik gaur egun esparru honetan eskaera handien duten bi espezialitateak eskaintzen ditu, ikasleei irtenbide onenak eman nahian.

eraikuntza eta obra zibila

- Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa.
- Obren eta planen burutzapena. GOI MAILAKOA

Ikasgai kopuru handia emanez eta teoria eta heziketa praktikoa bateratuz lan merkatuan irtenbide gehien dituen alorretako batean prestatzen ditugu ikasleak. Eraikuntzaren sektorearen barnean arlo desberdinetan gaitzen ditugu: eraikuntza eta obra publikoetako proiektugilea, antolamendu teknikariak edo arkitektureko azterketen lan teknikoa.

Lanbide HASTAPENA	Lanbide Heziketa ERDI MAILA	Lanbide Heziketa GOI MAILA
<ul style="list-style-type: none"> • Industri Mekanikako langilea • Linea zuriko elektronikako laguntzailea • Sukaldeko laguntzailea • Aroztegiko langilea 	<p>Osasungintza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erizaintza zainketa auxiliarrak 	<p>Ingurugiroa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurugiro Kimika • Ingurugiro Osasuna <p>Osasungintza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasungintzako dokumentazioa <p>Eraikuntza eta Obra Zibila:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa • Obren eta planen burutzapena <p>Gorputz eta Kirol Ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirolaren eta ekintza fisikoen animazioa.



aurrematrikula epea
ZABALIK

Informa zaitez!

902 11 20 25

Lanbide Heziketa

Ekainaren 3tik 12ra

www.arizmendikoop.org



Atzeskua

MAIDER OSA

Mikel Ibarzabal/Panpinagilea

Urretxun bizi arren, Bergara ez duzu saltzeko.

Lehenago, askotan joaten nintzen Bergarara, baina orain, gero eta gutxiago. Urretxun hiru urte daramatzat bizi izaten. Bergara asko gustatzen zait, baina Urretxu ere bai. Bergara uztean sumatutako hutsunea Urretxun aurkitutakoarekin bete dut.

Patraka-Matraka hankapalu taldeak zer esan nahi du zuretzako?

Antzinako kontuak dira horiek. Lehenengo aldiz antolatu genuenean hankapalu taldea Patraka-Matraka izena jarri genion. Hamabi bat urte genituela sortu genuen. Bergaran, Santa Marina atzeko portiko baten egoten ginen, eta Inauteriak zetozean hankapaluekin mozo-rrotzea erabaki genuen. Obretan taulak harrapatuta moldatu genituen hankapaluak. Udalean zinegotzi zeuden batzuei asko gustatu zitzaizen mozorroa, eta lokal baten sartzeko aukera

eman ziguten. Azkenaldian, Kukuma izenarekin funtzionatzen zuen taldeak.

Beharbada, talde hori izango zen gero lortu zenuten Guinness errekorren sorburu, ezta?

Katalan batzuek hankapaluen gaineko ikastaroa eman zuten Bergaran eta Lekeition, eta guk ikasten jardun genuen. Lekeition Aitita-Txiki izeneko hankapalu taldea zegoen, eta Hankapalu Egunak egin genituen. Lekeitiarrek antolatu zuten Guinness errekorrena. Ikastaroa eman zutenek 24 orduan zuten errekorra, eta guk 25 ordu egin genituen hankapaluen gainean zutik.

Alberto Iñurrategi maisu dugu garaiera handiko mendiak igotzen. Zuk txikiagoak igotzen dituzu, baina hankapaluekin.

Baditugu batzuk igota, bai. Behin, Goriz-eko mendi-aterperaino joan ginen, Pirinioetan. Aizkorrira ere

joan izan gara, eta Urbiara askotan.

Hankapaluekin batera panpinak ere egin izan dituzu.

Bai. Karetak eta trajeak egin izan ditugu hankapaluendako. Bergarako Inauterietako sardina ere 15 bat urtez egin izan dugu. Orain, panpinak egitea dut bizibide, duela pare bat urte-tik hona.

Tau Baskoniako Aker, All-Star Txapelketako Adidas zapatila, Donostiako Kutxa-espazio planetak, Bergarako hainbat erraldoi... zer gelditzen zaizu egiteko?

Gauza pilo bat. Filmatarako-eta zerbait egitea gustatuko litzaidake. Norbait interesatuta balego, nirekin harremanetan jarri besterik ez du.

Zenbat gaupasa egin dituzu panpinak bukatzen?

Mordo bat, emandako mugaegunarekin konplitu egin beharra dago-eta.



“Bergara uztean sumatutako hutsunea Urretxun aurkitutakoarekin bete dut”

“Hamabi bat urte genituela obretan taulak harrapatuta egin genituen lehenengo hankapaluak”

“Duela pare bat urtetik hona, panpinak egitea dut bizibide”

► Bergararra / 29 urte / Tau-ko Aker-en egilea

PIPERRAUTSA

Greba

Lehen zaratak hasi zirenean kilimak sentitu nituen. Ez nekien oso ondo zer ondorio izango zuen langabezia arauen erreformak. Baina gogaituta nago Aznarren harrokeriaz, eta greba modu ona izan zitekeen hori azaltzeko.

Azkenean, deitu dute greba Espainiako sindikatu nagusiek. Kostako zitzaien, sei urte luzez Aznarren lagun izan eta gero. Baina animatu dira, eta gainera, badirudi Zapatero bera berotu dutela. Ez zuen giza joak lan erraza izango, pastelkerian gusturago ikusten da.

Eta hara non euskal sindikatuek greba deitzen duten, baina bezperan egiteko. Ezin dut ulertu. Eta saiatu, saiatu naiz. Zenbait iturritan jaso ditut haien azalpenak, badaezpada, baina alferrik. Eman dituzten arrazoiek ez didate ezer argitu. Eta arazoa sortu didate.

Denbora askorik ez egon arren, uste dut dei bakarreko greba ganorazkoa egin zitekeela. Ez horrenbeste lege tekniko baten aurka. Aldiz, jende ugari dago Aznarren harrokeriaz nazka eginda, eta hori adieraztea arrazoi nahikoa da egun batez lana uzteko. Hainbat haserre bilduta, posible zen 'linier'-ari muturrekoa ematea.

Baina arrazoi peregrinoak direla medio, bi egunen artean aukeratu beharko dugu. Abertzaleek 19an egingo dute greba, 20an espainolek. Edo guztiak bietan? Edo batean ere ez? Gauzak horrela, greba baino areago, beste moduren bat aurkitu beharko dut Aznarri min emateko. Budua edo?

MIKEL IRIZAR



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua

M. ALTUNA

2002/2003 ikasturterako
Hezkuntza-eskaintza
KALITATEKO ESKAINTZA

Aurrematrikula epea: ekainaren 3tik 12ra
 Orduetgia: 09:30etatik 14:00etara

Ohiko matrikula: uztailaren 1etik 5era

Ibargarai 1 • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 • Faxa: 943 76 38 41
 Posta-e: imaltuna@sarenet.es eta 013020aa@hezkuntza.net
 www.imaltuna.com



GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastikoa eta kautxugintza
- Idazkaritza (bi hizkuntza: ingelesa eta frantsesa)*

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa*

* Zertifikazioaren eremutik kanpo